
ERRENTERIA - 2024
MUSIKASTE
52
EUSKAL
MUSIKAREN
ASTEA
SEMANA
DE LA
MÚSICA
VASCA
MAIATZAK 17-25 MAYO

**ANTOLATZAILEAK** ORGANIZAN
Andra Mari Abesbatza
Coral Andra Mari
Eresbil-Musikaren Euskal Artxiboa
Eresbil-Archivo Vasco de la Música

**SUSTATZAILEAK** PROMUEVEN
Errenteriako Udala
Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa
Eusko Jaurlaritza Kultura Saila
Departamento de Cultura
del Gobierno Vasco

**BABESLEAK** PATROCINAN
Laboral Kutxa
Super Amara

**LAGUNTZAILEAK** COLABORAN
Herri Arte Eskola
Musikagileak

MAIATZAK 17-25 MAYO

# EGITARAUA
## Programa


MAIATZAK 17, 18, 19 MAYO

PANPIN ORKESTRA 13

DANTZA 15
DANZA

IGANDE JARDUNA 21
JORNADA DOMINICAL

MAIATZAK 22, 23, 24, 25 MAYO

MUSIKA GARAIKIDEA 25
MÚSICA CONTEMPORÁNEA

GANBERAKO MUSIKA 29
MÚSICA DE CÁMARA

ALAN GRIFFINEN ALBOKA DOINUAK 31

KORUEN EGUNA 37
DÍA CORAL

AMAIERAKO KONTZERTUA 43
CONCIERTO DE CLAUSURA

MUSIKAGILEAK 45
COMPOSITORES

KONTZERTU DIDAKTIKOAK 81
CONCIERTOS DIDÁCTICOS



# MENDEURRENAK

## CENTENARIOS

### I. HERIOTZAREN MENDEURRENA

I Centenario del fallecimiento de

**Aguirre, Julián**
Buenos Aires (1868-1924)

**Belderrain, Ruperto**
Urnieta (1852-1924)

**Echaniz, Juan María**
Azkoitia (1850-1924)

**Perron, Edmond**
Baiona (1855-1924)

**Redal Sánchez, Felipe**
Laguardia (1868-1924)

**Vicendoritz, Marcel**
Donibane Lohizune (1863-1924)

### I. JAIOTZAREN MENDEURRENA

I. Centenario del nacimiento de

**Aizpurua, Pedro**
Andoain (1924-2018)

**Aldave, Pascual**
Lesaka (1924-2013)

**Basurko, Carlos**
Donostia (1924-2012)

**Goicoechea Aizcorbe, José María**
Bera (1924-2017)

**Larrañaga, Ramiro**
Soraluze (1924-2005)

**Lucuix, Léo**
Bordele (1924-2019)

**Narvarte, Antonio**
Irun (1924-2008)

**Rey Azcarate, Antonio**
Bilbao (1924-2005)

**Saragüeta Urtasun, Pascual**
Aurizberri (1924-2017)

**Zumarraga Alfaro, Juan Antonio**
Vitoria-Gasteiz (1924-2009)

### II. HERIOTZAREN MENDEURRENA

II. Centenario del fallecimiento de

**Garagalza, Manuel**
Oñati (1774-1824)

# MUSIKASTE 52

MUSIKASTE – Euskal Musikaren Asteak 52. edizioari ekingo dio 2024an, Eresbil – Musikaren Euskal Artxiboaren urrezko ezteien ospakizun betean. 1974an sortutako erakundea da Eresbil, eta gure konpositoreen obrez hornitzea izan zuen jatorri, musika astean interpretatzeko. Erabakigarria izan da astearen bilakaeran, euskal musika-ondarea babesteko lan handia egin baitu.

Bien jarduerak aukera ematen du jaialdiaren helburuak betetzen jarraitzeko, hala nola sortzaileei eta interpreteei laguntzea, haien musika deskubritzea eta egungo konpositoreei laguntza berezia ematea.

MUSIKASTE maiatzaren 17an hasiko da *Panpin orkestra* izeneko ikuskizunarekin, Idoia Hernández "HATXE"ren konposizioak oinarri hartuta. Errenteriako musikariek eta poetek, Herri Arte Eskolako orkestrarekin batera, beren ikuspegi musikal eta artistikoa eskainiko dute.

Larunbatean, hilak 18, dantza izango da protagonista eta Kukai Dantza Taldearen emanaldia eta *Txalaparta* izeneko ikuskizun berriaren aurkezpena ikusi ahal izango ditugu. Jesús Rubio Gamoren koreografiarekin, Jon Mayaren zuzendaritza artistikoarekin batera, taldeko kideek sustraiko dantzaren eta haren ikuspegi garaikide berriaren artean nabigatuko dute.

Igandean Errenteriako Udal Txistulari Bandaren ohiko Diana izango da, eta ondoren kontzertua eskainiko du. Parrokian, Ignacio Arakistainek organoa interpretatuko du eta, ondoren, Errenteriako Andra Mari abesbatzarekin batera, José Mª Goicoechea eta Pedro Aizpuruaren obrak interpretatuko ditu. Goizeko saioari amaiera emateko, Errenteriako Musika Bandak Luis Fraca, zendu berriaren oroimenez, Luis de Aramburu eta José Luis Marcoren obrak joko ditu.

Arratsaldean, Lekuona Fabrikan, *Koloreka Kontari* izeneko haurrentzako abesbatzari buruzko jardunaldia egingo da. Herriko bost ikastetxek kontzertua eskainiko dute elkarrekin.

Hurrengo astean, hilaren 22ko eta 23ko jardunaldi pedagogikoak nabarmendu behar dira. Perkusioari buruzko ikuskizuna eskainiko da, *Living Room Music* izenekoa, eta txikienen gozamena ekarriko du.

Maiatzaren 22an musika garaikidearen txanda izango da. Jon Ansorenak, txistuak, Gorka Catedianok, perkusioak, eta Maria Zubimendik, eskusoinuak, osatzen dute hirukotea, eta Miren Lizeaga dantzariarekin batera Zuriñe F. Gerenabarrena, María Eugenia Luc, Juan José Eslava eta Francisco Domínguezen obrak joko dituzte, besteak beste.

Ganbera musikak hartuko du lekukoa hilaren 23an, ostegunarekin, Tomás Garbizu, P. Donostia, Félix Lavilla, Jesús Guridi eta Maurice Ravelen lanen egitarau anitzarekin, Pavel Gomziakovek txeloan eta Josu Okiñenak pianoan interpretatuak.

Ostiralean, hilak 24, bi kontzertu izango dira egun berean. Lehenbizikoa herri musikari buruzkoa izango da, Alan Griffin instrumentista zenaren oroimenez. Irati Irizarrek (biolina), Arkaitz Minerrek (gitarra) eta Herri Arte Eskolako dultzaina-taldeak *Halfway to hell* izeneko liburutik aukeratutako errepertorioa eskainiko dute .

Bigarren kontzertua, berriz, musika koralari eskainia izango da eta Euskal Herriko hainbat lurraldetako taldeak izango dira bertan, hala nola, Baiona Euskal Herriko Abesbatza sortu berria, Bihotz Alai Algortako (Getxo) abesbatza beteranoa, Easo Emakumeen Abesbatza donostiarra eta Errenteriako Landarbaso Abesbatza, besteak beste. Formazio horiek izango dira bertan eta errepertorio anitza interpretatuko dute, J.C. Arriagaren, Vicente Goicoechearen, José Domingo de Santa Teresaren, Javier Bustoren, Jesús Guridiren eta José de Olaizolaren obrekin.

Amaitzeko, kontzertu sinfoniko-koralak itxiko du edizio hau. Euskadiko Orkestrak eta Andra Mari abesbatzak, Baldur Brönnimannen zuzendaritzapean, Ramon Lazkano, Itziar Viloria eta Pascual Aldaveren obrez osatutako errepertorio exijentea aurkeztuko dute. Gainera, Pascual Aldave jaio zeneko mendeurrena ospatuko dugu ekitaldian.

# AURKEZPENA
# Presentación

MUSIKASTE – Semana de la Música Vasca, afronta en 2024 su edición número 52 en plena celebración de las bodas de oro de Eresbil – Archivo Vasco de la Música.
Eresbil, creado en 1974, y cuyo origen fue proveer de obras de nuestros compositores para ser interpretadas en la semana, ha sido decisivo en el devenir de la misma, realizando una ingente labor de salvaguarda del patrimonio musical vasco.
La actividad de ambas entidades permite continuar con el reto de seguir cumpliendo con los objetivos del festival, ejemplificados en el apoyo a creadores e intérpretes, el descubrimiento de su música, y el especial apoyo a los compositores actuales.
MUSIKASTE iniciará el presente itinerario el 17 de mayo con el espectáculo titulado *Panpin orkestra*, articulado a partir de las composiciones de Idoia Hernández "HATXE". Músicos y poetas locales junto con la orquesta de Herri Arte Eskola darán vida a su personal visión musical y artística.
El sábado 18 la danza será la protagonista con la actuación de Kukai Dantza Taldea y la presentación de su nuevo espectáculo, *Txalaparta*. Con coreografía de Jesús Rubio Gamo y la dirección artística de Jon Maya, los miembros del grupo navegarán entre la danza de raíz y una nueva visión contemporánea de la misma.
La jornada dominical contará con la tradicional "Diana" a cargo de la Banda municipal de txistularis de Errenteria, que posteriormente ofrecerá un concierto. Ya en la parroquia, Ignacio Arakistain intervendrá al órgano, y, a continuación, junto a la Coral Andra Mari de Errenteria, interpretarán obras de José Mª Goicoechea y Pedro Aizpurua, de quienes celebramos el centenario de su nacimiento. La jornada matutina finalizará con el concierto de la Banda de Música de Errenteria, que nos brindará obras de Luis Fraca, recientemente fallecido, Luis de Aramburu y José Luis Marco.
Por la tarde, en Lekuona Fabrika se celebrará una jornada dedicada al mundo coral infantil titulada *Koloreka Kontari*, donde cinco centros docentes de la localidad ofrecerán un concierto conjunto.
Ya inmersos en la semana siguiente, destacar las jornadas pedagógicas de los días 22 y 23 con el espectáculo dedicado al mundo de la percusión y titulado *Living Room Music*, el cual hará las delicias de los más pequeños.
El 22 de mayo es también el turno de la música contemporánea, a cargo del Trio Zukan compuesto por Jon Ansorena al txistu, el percusionista Gorka Catediano y la acordeonista Maria Zubimendi, que conjuntamente con la bailarina Miren Lizeaga interpretarán obras de Zuriñe F. Gerenabarrena, María Eugenia Luc, Juan José Eslava, Francisco Domínguez y Hugo Morales.
La música de cámara tomará el relevo el jueves día 23 con un variado programa de obras de Tomás Garbizu, P. Donostia, Félix Lavilla, Jesús Guridi y Maurice Ravel, interpretadas al cello de Pavel Gomziakov y al piano de Josu Okiñena.
El viernes día 24 se celebrarán dos conciertos en la misma jornada. El primero dedicado a la música popular en recuerdo del recientemente fallecido instrumentista Alan Griffin, en el cual Irati Irizar al violín, Arkaitz Miner a la guitarra, y el grupo de dulzaineros de Herri Arte Eskola ofrecerán un repertorio a partir de su libro titulado *Halfway to hell*.
El segundo concierto estará dedicado a la música coral y acogerá a formaciones de los diversos territorios de Euskal Herria, como la recién creada Baiona Euskal Herriko Abesbatza, la veterana coral de Algorta (Getxo) Bihotz Alai, la donostiarra Easo Emakumeen Abesbatza y la coral Landarbaso Abesbatza de Errenteria. Ellas serán las encargadas de dar vida a un variado repertorio con obras de J.C. de Arriaga, Vicente Goicoechea, José Domingo de Santa Teresa, Javier Busto, Jesús Guridi y José de Olaizola entre otros.
Para finalizar, el concierto sinfónico-coral cerrará la presente edición. Euskadiko Orkestra y la Coral Andra Mari, bajo la dirección de Baldur Brönnimann, darán a conocer un exigente programa con obras de Ramon Lazkano, Itziar Viloria y Pascual Aldave, al que recordaremos celebrando el centenario de su nacimiento.


MAIATZAK 17,18,19
22,23,24,25
MAYO


EGITARAUA
PROGRAMA

# Peru GALBETE



Nacido en Usurbil en 1987, desarrolla su actividad entre el campo audiovisual y la producción musical, centrándose en la voz y la imagen, unas veces de forma separada y otras poniéndolas en relación. Su interés estriba en la experimentación vocal, la improvisación y la *performance*, habiendo creado tanto piezas individuales como colectivas. Asimismo, trabaja el imaginario, el diseño, los dibujos, las poesías y los vídeos que rodean su música.
Ha grabado cuatro discos como cantautor: *Peru* (2016), *Voces de la selva* (2017), *Nor zara zu?* (2020) y *Beiratu* (2022) y, al margen de su proyecto musical personal, es miembro del colectivo Mukuru y ha formado parte de numerosos proyectos grupales y multidisciplinares.

Usurbilen jaio zen 1987an, eta bere jarduera ikus-entzunezkoen eta musika-ekoizpenaren artean garatu zuen, ahotsean eta irudian oinarrituta, batzuetan bereizita eta beste batzuetan elkartuta. Bere interesa ahots-esperimentazioan, inprobisazioan eta *performance*an datza, bakarkako zein taldeko piezak sortuz. Era berean, imajinarioa, diseinua, marrazkiak, olerkiak eta bere musika inguratzen duten bideoak lantzen ditu.
Lau disko grabatu ditu kantautore gisa: *Peru* (2016), *Voces de la selva* (2017), *Nor zara zu?* (2020) eta *Beiratu* (2022), eta, bere musika-proiektu pertsonala alde batera utzita, Mukuru kolektiboko kidea da, eta taldeko eta diziplina anitzeko hainbat proiektutan parte hartu du.

perugalbete.com

# Jurdana OCHOA



Violinista nacida en Errenteria en 1978, ha desarrollado su actividad tanto en el ámbito de la música clásica y contemporánea como colaborando con diversas formaciones de folk y rock. Tras finalizar sus estudios musicales en 1999, formó parte de la EGO y de la Orquesta Pablo Sarasate de Pamplona y, en el año 2000, ingresó en la orquesta Et Incarnatus, formación a la que continúa perteneciendo actualmente. Ha tenido la ocasión de actuar y grabar con artistas como Iñaki Salvador, Petti, Mikel Urdangarin, Eñaut Elorrieta, Maddi Oihenart, Hertzainak, Banda Bassotti, Noa, Pasión Vega, Antton Valverde, Benito Lertxundi, Gonzalo Tejada, Txomin Artola, Imanol, Jabier Muruguza o Joseba Tapia, y ha participado en varios musicales bajo la dirección de Pier Paul Berzaitz, Gontzal Mendibil o Joxan Goikoetxea. También participa activamente en el festival Urmuga.
Por otro lado, desarrolla una intensa actividad en el mundo teatral, habiendo participado en los espectáculos *Tarara* (2022), *Andrezaharraren manifestua* (2020), *Maiteka* (2017), *VaGera* (2018) o *Zapatak* (2012).

1978an Errenterian jaiotako biolin-jotzaileak musika klasikoaren eta garaikidearen esparruan garatu du bere jarduera, baita folk eta rock talde batzuekin lankidetzan ere.
1999an musika-ikasketak amaitu ondoren, EGOko eta Iruñeko Pablo Sarasate Orkestrako kide izan zen, eta, 2000. urtean, Et Incarnatus orkestran sartu zen, gaur egun oraindik ere bertako kide delarik.
Iñaki Salvador, Petti, Mikel Urdangarin, Eñaut Elorrieta, Maddi Oihenart, Hertzainak, Banda Bassotti, Noa, Pasión Vega, Antton Valverde, Benito Lertxundi, Gonzalo Tejada, Txomin Artola, Imanol, Jabier Muruguza edo Joseba Tapia bezalako artistekin jo eta grabatzeko aukera izan du, eta Pier Paul Berzaitz, Gontzal Mendibil edo Joxan Goikoetxearen zuzendaritzapean hainbat musikaletan parte hartu du. Urmuga jaialdian ere aktiboki parte hartzen du.
Bestalde, jarduera bizia garatzen du antzerkiaren munduan, eta *Tarara* (2022), *Andrezaharraren manifestua* (2020), *Maiteka* (2017), *VaGera* (2018) edo *Zapatak* (2012) ikuskizunetan parte hartu du.

# HERRI ARTE ESKOLA GANBERA ORKESTRA



Errenteriako Herri Arte Eskolako Ganbera Orkestra 1989/90 ikasturtearen hasieran sortu zen, biolin, biola eta biolontxeloko ikasle talde batetik abiatuta, eta martxan jarri zen ikasleek beren prestakuntzaren zati gisa taldean jotzeko beharrari erantzuteko. Pedro Otxoa izan zen lehen zuzendaria.
Ordutik, kontzertu ugari eman ditu Euskal Herrian, baita Tullen, Brive-la-Gaillarden, Mugronen eta Akizen (Frantzia), Lousadan (Portugal) eta Schorndorfen (Alemania) ere. Hainbat kolaboratzaile izan ditu: Andra Mari abesbatza, Landarbaso abesbatza, Karnaba otxotea, Xatz-Eskifaia abesbatza, Aitzuri abesbatza, Donostiako Ganbera Abesbatza, Tolosako Orfeoia, Aita Donostia abesbatza, Bergarako Orfeoia, Oiñarri abesbatza, Txintxarri abesbatza, etab.
Orain arte eskainitako kontzertu ugarien artean, Donostiako Victoria Eugenian (*Gabon Kantuz*), Errenterian *La Misión* filmaren soinu-bandarekin eskainitakoa, Errenteriako Niessen zentro kulturalaren eta Lousadako (Portugal) zentro kulturalaren inaugurazioak, Mozarten *Réquiem* eta Brahmsen *Nänie*, Donostiako hamabostaldiaren barruan, MUSIKASTE 96 Y 99, Perosiren *Réquiem*, Haendelen *El Mesías*, Mozarten *Koroazioaren Meza*, *Mariren Laberintoa* musikala eta Europako Parlamentuan eskainitako emanaldiak nabarmentzen dira.
1995eko urritik Sergio Zapirain Mendizabal da zuzendaria.

La Orquesta de Cámara de Herri Arte Eskola de Errenteria fue creada a comienzos del curso 1989/90, a partir de un grupo de alumnos de violín, viola y violonchelo, y comenzó a funcionar para dar respuesta a la necesidad de que los alumnos tocaran en grupo como parte de su formación, siendo entonces su director Pedro Otxoa.
Desde entonces, ha ofrecido numerosos conciertos en Euskal Herria, así como en Tulle, Brive-la-Gaillarde, Mugron y Dax (Francia), o en Lousada (Portugal) y Schorndorf (Alemania).
Ha colaborado en varias ocasiones con la coral Andra Mari, el coro Landarbaso, el Otxote Karnaba, el coro Xatz-Eskifaia, el coro Aitzuri, la Coral de Cámara de San Sebastián, el Orfeón Tolosarra, la Coral Aita Donostia, el Orfeón Bergarés, el coro Oiñarri, el coro Txintxarri, etc.
Entre los numerosos conciertos ofrecidos hasta el momento destacan los realizados en el Victoria Eugenia de San Sebastián (*Gabon Kantuz*), el de Errenteria con la banda sonora de la película *La Misión*, o las inauguraciones del centro cultural Niessen de Errenteria y del centro cultural de Lousada (Portugal), el *Réquiem* de Mozart y *Nänie* de Brahms, dentro de la quincena donostiarra, los conciertos ofrecidos en MUSIKASTE 96 Y 99, el *Réquiem* de Perosi, *El Mesías* de Haendel, la *Misa de la Coronación* de Mozart, el musical *Mariren laberintoa* y su actuación en el Parlamento Europeo.
Desde octubre de 1995 su director es Sergio Zapirain Mendizabal.

## PANPIN ORKESTRA

Idoia Hernandez "HATXE" herriko musikagileak Herri Arte Eskolako orkestrarekin aurkeztuko duen kontzertua da. *Teoría King Kong* (Virginie Despentes), *Historia de España contada a las niñas* (María Bastarós), *Antídotos contra la belleza* (Ana Elena Pena), *Amek ez dute* (Katixa Agirre), *Malditas* (Itziar Ziga), *Madres arrepentidas* (Orna Donath) eta beste hainbat liburu izan dira inspirazio iturri kontzertu hau osatzeko.

*"Nire zauriak berrikasi nahi ditut. Lotsak plazaratu, beldurrak jaso eta manta goxoaz babestu. Malkoak kolorez tintatu, garrasiak paper zurian islatu, dudak lagunekin besarkatu eta amorruaren gris zabalekin dantza eginez onartu. Bai, onartu. Epaitu gabe, begiratu. Eta akaso, indarra banu, aurre eginez jarraitu."* @hatxe__

## IDOIA HERNANDEZ

*Zauria*
*Histeria* (hitzak, Elia Millan)
*Bakana*
*Puta* (hitzak, Idoia Hernandez)
*Ero* (hitzak, Peru Galbete)
*Arnasa*
*Kali* (hitzak, Alexia Papantchev, Elia Millan, Sihara Nuño)
*Ahotsa*
*Ama* (hitzak, Elia Millan)
*Baso* (hitzak, Peru Galbete)
*Drama* (hitzak, Idoia Hernandez)
*Panpina* (hitzak, Elia Millan)

**Idoia Hernandez,** ahotsa, pianoa
**Peru Galbete,** ahotsa
**Jurdana Ochoa,** biolin bakarlaria
**Itsaso Etxebeste,** baxu elektrikoa
**Herri Arte Eskolako Ganbera Orkestra,** Sergio Zapirain, zuzendaria
**Sihara Nuño, Alexia Papantchev,** poeta gonbidatuak
**Emakumeen etxeko kantu taldea,** beste gonbidatuak

**17**
**maiatza**
**mayo**
OSTIRALA
VIERNES
18:30EAN

LEKUONA FABRIKA

# KUKAI DANTZA



Mendi Urruzuno

Kukai Dantza comenzó en el año 2009 una línea creativa basada en la invitación a coreógrafos de distintas procedencias artísticas para ofrecer una nueva mirada hacia su danza. Tras un importante periodo en el que Jon Maya y Jesús Rubio han trabajado conjuntamente, los creadores, que conforman la dirección artística, emprenden un proceso que lleva a la compañía a seguir desarrollando su estilo de creación contemporánea inspirada en la danza de raíz. Tras las propuestas nacidas de los encuentros con Marcos Morau, Sharon Fridman o Cesc Gelabert, el encuentro con Jesús Rubio Gamo supone un nuevo paso en el desarrollo de la compañía. Kukai Dantza afronta el reto de complementar dos movimientos en un mismo lenguaje y unir esas dos grandes fuerzas que constituyen las dinámicas compositivas, la fuerza circular de Rubio y el vigor de lxs bailarinxs de la compañía.

Kukai Dantzak 2009an bere dantzarekiko begirada berri bat eskaintzeko sormen-ildo bat hasi zuen jatorri artistiko desberdinetako koreografoei egindako gonbidapenean oinarritua. Jon Maya eta Jesús Rubioren arteko enkontrutik zuzendaritza artistikoa osatzen duten sortzaileek prozesu bat abiatu zuten, eta, horren ondorioz, konpainiak errotiko dantzan oinarritutako sorkuntza garaikidearen estiloa garatzen jarraitu du.
Marcos Morau, Sharon Fridman edo Cesc Gelabertekin izandako topaketetatik sortutako proposamenen ondoren, Jesús Rubio Gamorekin izandako topaketa urrats berri bat da konpainiaren garapenean. Kukai Dantzak bi mugimendu hizkuntza berean osatzeko eta konposizio dinamikak osatzen dituzten bi indar handi horiek, Rubioren indar zirkularra eta konpainiaren dantzarien indarra, batzeko erronkari aurre egiten dio.

kukai.eus

# TXALAPARTA

*Txalaparta* Kukai Dantza eta Jesus Rubio Gamoren arteko topaketatik sortutako sorkuntza berria da. Ez du mugarik, askatasun-eremu bat da, non unibertso komun berri bat eraiki ahal izango den, bakoitzaren berezko identitateari uko egin gabe.
Zazpi interprete errotiko dantzaren eta haiekiko ikuspegi garaikide baten arteko topaketak proposatzen duen espazio emozionalaean murgiltzen dira. Lurretik sortzen den erritmoa, orainean durundi egiten eta ahots eran euri-jasan erortzen den memoriaren eta geroaren artean eraikitako gorputzen gainean.
Txalapartak jotzen dutenek emandako kolpeek sortzen dute haren soinua, baina jotzeari utzi eta gero, inor ez da gertatutako Soinuaren jabe; ezin da heldu, haren izaerak desafio egiten dio finkotasunaren ideiari, lantzen duen horren arima eraldatzen duen askapen bihartzen da kolpea. Nor bere gorputza sakonago entzun eta hautematen da: hegaldi bihurtzen. Ekintzaren potentziak ugaritu egiten dira, eta agerian uzten dute gu geu garen materia-nahaspila askotariko hori.

*Txalaparta* es una nueva creación que nace del encuentro entre Kukai Dantza y Jesús Rubio Gamo. No tiene límites, es un espacio de libertad en el cual poder construir un nuevo universo en común, sin renunciar a la identidad propia de cada unx de nosotrxs.
Siete intérpretes navegan por el espacio emocional que propone el diálogo entre la danza de raíz y una visión contemporánea hacia ella. Un ritmo que nace de la tierra, percute en el presente y llueve en forma de voz sobre los cuerpos construidos entre la memoria y el futuro.
La txalaparta suena a partir de los golpes que van produciendo los que la percuten, pero una vez concluido el acto de tocar ninguno es dueño de lo que ha sonado; no se puede agarrar, su naturaleza desafía la fijación, el golpe se convierte en algo liberador que muta el alma del que trabaja. La escucha y la percepción del propio cuerpo se tornan más profundas, se convierten en vuelo. Es la multiplicación de las potencias de la acción; es la evidencia de ese amasijo de materias diversas que somos.

**18**
**maiatza**
**mayo**

**LARUNBATA**
**SÁBADO**
**19:00ETAN**

**LEKUONA FABRIKA**

# KUKAI DANTZA

**Jon Maya Sein**, proiektuaren zuzendaritza
**Jesús Rubio Gamo**, koreografia
**Jesús Rubio Gamo eta Jon Maya Sein**, zuzendaritza artistikoa
**Doltza Oar-Arteta Torrealdai**, sormen produkzioa
**Alain Maya, Arantza Iglesias, Ibon Huarte, Izar Aizpuru, Izaro Urrestarazu, Nerea Vesga, Urko Mitxelena**, jokalariak
**Aitor Etxebarria**, musika konposizioa
**Aitor Beltran**, txalaparta konposizioa
**David Bernués**, argi diseinua
**Leire Santillán**, jantzien diseinua
**Imanol Elizasu**, ahots teknikan aholkularia

**Elena García**, produkzioa eta administrazioa
**Acrónica Producciones**, lantalde teknikoa
**Doltza Oar-Arteta**, biraren koordinazioa

Koprodukzioa: **Errenteriako Udala, Malandain Ballet Biarritz, Victoria Eugenia Antzokia,**
Erakunde laguntzaileak: **Eusko Jaurlaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Etxepare Euskal Institutoa, INAEM, Laboral Kutxa**



# IGNACIO ARAKISTAIN



Azpeitian jaio zen 1998an, eta 7 urterekin hasi zituen piano ikasketak. Donostiako Francisco Escudero kontserbatorioan jarraitu zuen ikasten Junkal Guerrero irakaslearekin. Aldi berean, organoa jotzen hasi zen Jose Luis Frantzesenaren zuzendaritzapean. Euskadiko Musikari Gazteen lehiaketan tekla kategorian saritua izan da, baita Enrique Lartundo fundazioaren Donostia Hiria Piano Lehiaketan ere. Hirugarren saria ere jaso zuen Burgosko Francisco de Salinas lehiaketan.
Hainbat musika ziklotan parte hartu du, hala nola Donostiako Musika Hamabostaldian, Gipuzkoako Organo Erromantikoaren Zikloan, Bizkaiko Hotsak zikloan eta Nafarroako Organorako Musika Zikloan, besteak beste.
Musikeneko organo ikasketak kalifikazio gorenekin amaitu zituen, besteak beste, Esteban Landart, Monica Melcova eta Karol Mossakowskirekin ikasi zuelarik. Hainbat kultur proiektutan etengabe parte hartu izan du, eta nabarmentzekoa da konposizio propioekin grabatutako *Galerak* (2019) diskoa. Ganbera-musikaren arloan aipagarriak dira Peio Irigoyen txistulariarekin eta Garazi Navas akordeoi jotzailearekin egindako lanak. Halaber, 2022ko urtarrilean, Donostiako Orfeoia-Musikene VI. saria eman zioten, Valentin Larrea (1876-1970) konpositoreari buruzko lanagatik. Gaur egun, masterreko ikasketak egiten ari da Vienako Musika eta Arte Dramatikoko Unibertsitatean, Pier Damiano Peretti maisuarekin.

Nace en Azpeitia en 1998, inciándose en el piano a los 7 años. Continuó su formación en el conservatorio Francisco Escudero de San Sebastian con la profesora Junkal Guerrero. Al mismo tiempo, comenzó a tocar el órgano bajo la dirección de José Luis Frantzesena. Ha sido premiado en el concurso Jóvenes Músicos de Euskadi en la categoría de tecla y en el Concurso de Piano Ciudad de San Sebastián por la fundación Enrique Lartundo. También resultó premiado con el tercer premio en el tercer certamen Francisco de Salinas en la ciudad de Burgos. Ha participado en diversos ciclos de música como la Quincena Musical de San Sebastián, el Ciclo de Órgano Romántico de Guipúzcoa, el ciclo Bizkaiko Hotsak o el Ciclo de Música para Órgano en Navarra, entre otros. Finalizó con las más altas calificaciones los estudios de órgano en Musikene, habiendo estudiado con Esteban Landart, Monica Melcova y Karol Mossakowski, entre otros. Su participación en proyectos culturales ha sido continua, destacando el disco *Galerak* (2019) grabado con composiciones propias. En el campo de la música de cámara caben destacar sus trabajos con el txistulari Peio Irigoyen y la acordeonista Garazi Navas. Asimismo, en enero de 2022 fue premiado con el VI Premio Orfeón Donostiarra-Musikene por su trabajo sobre la figura del compositor Valentín Larrea (1876-1970). Actualmente se encuentra realizando sus estudios de máster en la Universidad de Música y Arte Dramático de Viena junto al maestro Pier Damiano Peretti.

# ERRENTERIAKO UDAL TXISTULARI TALDEA
# BANDA MUNICIPAL DE TXISTULARIS DE ERRENTERIA




Gaur egungo Errenteriako Udal Txistulari Taldea 2003an sortu zen, oposizioak ospatu ondoren, eta urte hartako uztailean ekin zion bere ibilbideari.
Gaur egun, honako hauek osatzen dute txistu taldea: Xabier Vesga (txistua 1), Josu Izagirre (silbotea) eta Iñaki Letamendia (atabala).
Txistulari taldeak hainbat funtzio ditu: igandero diana jotzen dute Errenteriako auzoetan zehar, hilean behin kontzertu bat eskaintzen dute Udaletxeko plazan, inauterietako diana, udalbatzak, San Joan bezperako aurreskua, Madalenen prozesioa, erraldoiak eta buruhandiak, etab.
Jarduera horiez gain, Errenteriako beste ekitaldi eta jai batzuetan ere parte hartzen du. Halaber, Euskalerriko Txistulari Elkarteak antolatutako ekitaldietan parte hartzen du, beste herri eta udaletako txistulariekin.

La actual Banda Municipal de Txistularis de Errenteria se formó en 2003 tras la celebración de oposiciones, empezando su andadura el mes de julio.
Actualmente, el grupo de txistus lo componen las siguientes personas: Xabier Vesga (txistu 1°), Josu Izagirre (silbote) e Iñaki Letamendia (atabal).
La banda de txistularis tiene varias funciones: todos los domingos tocan la diana por los barrios de Errenteria, una vez al mes ofrecen un concierto en la plaza del Ayuntamiento, diana de carnavales, corporaciones, aurresku de la víspera de San Juan, procesión de Magdalenas, gigantes y cabezudos. etc. Además de estas actividades, también toma parte en otros actos y fiestas de Errenteria. Asimismo, participa en los actos organizados por Euskalerriko Txistulari Elkartea, con txistularis de otros pueblos y ayuntamientos.

# ERRENTERIAKO MUSIKA BANDA BANDA DE MÚSICA DE ERRENTERIA



Errenteriako Musika Bandak 1864. urtean sortua, historian zehar izen ezberdinak jaso izan ditu: Sociedad Filarmónica (1864) eta Udal Musika Banda (1923), horrela 1948. urtean orain duen izena hartu zuen. Bandaren zuzendaritza Teodoro Gamón, Hipólito Guezala, José María Iraola, Gabino Zarranz, Valentín Manso, Ignacio Ubiria, José Luis Mate eta Carlos Rodriguezen ardurapean egon da; eta zuzendari gonbidatu gisa, M. Lorenzo de Reizábal, J.A. Sáinz Alfaro, J.M. Tife Iparragirre, X. Rallo Sagarzazu edota J.M. Guezala. Hainbat sari jaso izan ditu eta Donostiako Musika Hamabostaldian parte hartu zuen (1995 eta 1998an), Musikasten 1995etik egun arte; bai eta Oskorri taldearekin 2008 eta 2014ean.
Nazioarte mailan eskaini izan ditu emanaldiak, Bordelen, Lousadan-Oporton (2002) edo Pariseko La Cigale antzokian (2010). 1996. urtetik Musika Banden Alardea antolatzen du. 2012an, Nazioarteko Konposizio Lehiaketa antolatu zuen Musikagileak elkartearekin batera. ACNUR, Siriako gerrateko kaltetuen edo bestelako kaltetuen aldeko kontzertu solidarioak ere antolatu izan ditu. 2016 urtean bere ibilbideagatik UPV-Orfeón Donostiarra saria jaso zuen. Gaur egun Alain Ayerdi eta Aitor Mitxelena dira Errenteriako Musika Bandaren zuzendariak.

www.emkebanda.com

La Banda de Música de Errenteria, fundada en el año 1864, ha recibido diversos nombres a lo largo de su historia: Sociedad Filarmónica (1864) y posteriormente Banda Municipal (1923), hasta recibir en el año 1948 su actual denominación. Han sido sus directores Teodoro Gamón, Hipólito Guezala, José María Iraola, Gabino Zarranz, Valentín Manso, Ignacio Ubiría, José Luis Mate y Carlos Rodríguez, siendo dirigida asimismo por M. Lorenzo de Reizábal, J.A. Sáinz Alfaro, J.M. Tife Iparragirre, X. Rallo Sagarzazu o J.M. Guezala. Es poseedora de diversos premios y ha ofrecido conciertos especiales en la Quincena Musical de Donostia (1995 y 1998), Burdeos, Lousada -Oporto (2002), o en la sala La Cigale de París (2010); en Musikaste desde 1995 hasta el presente; así como con el grupo vasco Oskorri (2008 y 2014).
Organiza desde 1996 un Alarde de Bandas anual. En 2012 la Banda de Música de Errenteria convocó un Concurso Internacional de obras para banda junto con la Asociación Musikagileak.
La agrupación organiza asimismo conciertos solidarios ayudando a ACNUR, refugiados o colectivos damnificados. En el año 2016 fue galardonada con el Premio UPV-Orfeón Donostiarra a su trayectoria musical. Los actuales directores de la Banda de Música de Errenteria son Alain Ayerdi y Aitor Mitxelena.

## DIANA
Errenteriako Udal Txistulari Taldea

**Xabier Vesga**, zuzendaria

HERRIKO KALEETAN
10:00ETAN

## ORGANO EMANALDIA

MARIA DONEA ZERURATZEA PARROKIA
PARROQUIA SANTA MARÍA DE LA ASUNCIÓN
10:30EAN

| | |
|---|---|
| José Mª Goicoechea | *Sonata ambiental* |
| | *Entrada* |
| Pedro Aizpurua | *Meditación* |
| José Mª Goicoechea | *Momentos litúrgicos – nº 13, Íntimo* |
| Pedro Aizpurua | *Eyú* |

**Ignacio Arakistain**, organoa

11:00ETAN

## PEDRO AIZPURUA ETA JOSÉ Mª GOICOECHEAREN MUSIKA LITURGIKOA

| | |
|---|---|
| José Mª Goicoechea | *Momentos litúrgicos – nº 1, Maestoso organoa* |
| Pedro Aizpurua | *Damu – otoitza I* |
| Pedro Aizpurua | *Aintza zeruetan II* |
| José Mª Goicoechea | *Sanctus – Benedictus (Missa Brevis en honor de San Francisco Javier)* |
| Pedro Aizpurua | *Gure Aita* |
| José Mª Goicoechea | *Agnus Dei (Missa Brevis en honor de San Francisco Javier)* |
| José Mª Goicoechea | *Bendigo tu presencia* |
| Pedro Aizpurua | *Ave Maria* |

**Andra Mari Abesbatza**
**Ignacio Arakistain**, organoa
**Andoni Sierra**, zuzendaria

## KOLOREKA KONTARI



LEKUONA FABRIKA
18:30EAN

Musikal parte hartzailea,
aniztasuna goraipatuz
eszenatokia kolorez jantziko duena

# TXISTU EMANALDIA

**Herriko Enparantza**
**12:00etan**

**19**
**maiatza**
**mayo**
**IGANDEA**
**DOMINGO**

| | |
|---|---|
| Jon Etxeandia | *Zubipeko's Novelty* |
| Jose Ignazio Ansorena | *Arizkun* |
| | *- Sagar dantza* |
| | *- Mutil dantza* |
| Herrikoia / J. I. Ansorena, mold. | *Tresnak*** |
| | *- Makil handi* |
| | *- Brokel dantza* |
| | *- Uztai txiki* |

**Errenteriako Udal Txistulari Taldea**
**Xabier Vesga**, zuzendaria
****Ereintza Dantza Taldea**

# BANDA EMANALDIA

**Koldo Mitxelena Ikastetxea**
**12:45ean**

| | |
|---|---|
| Luis Fraca Royo | *Suite de micro-piezas – op. 41* |
| Luis de Aramburu / Angel Briz, instr. | *Tres piezas corales* |
| | *- Yo quise de fermosura* |
| | *- Araba, herri maitea* |
| | *- Akelarre en el Gorbea* |
| José Luis Marco | *Fantasía sobre temas populares vascos** |

**Errenteriako Musika Banda**
**Aitor Mitxelena Rubio,** zuzendaria

*Estreinaldi nagusia



# Trio ZUKAN



Tradizioa eta modernitatea uztartzen dituen jarduera batekin, Trio Zukan azken urteetan egungo musikaren esparruan sortu diren talde original eta goraipatuenetako bat da. Txistu, akordeoi eta perkusioz osatua, hirukoteak bere ezohiko konbinazio instrumentala sendotasun bihurtu du, publikoa instrumentu hauen aukera harrigarriak deskubritzera gonbidatzen duten programak proposatuz, bai akustikoan, bai elektronikarekin, ikus-entzunezko baliabideekin eta eszenaratze performatibo eta berritzaileekin batera.
2014an sortu zenetik, José María Sánchez-Verdú, María Eugenia Luc, Hugo Morales, Helga Arias, Juanjo Eslava, Zuriñe F. Gerenabarrena, Mikel Chamizo, Isabel Urrutia, Francisco Domínguez, Carolina Cerezo edo Jagoba Astiazaran konpositoreek, beste askoren artean, eurentzako obrak idatzi dituzte.
Hirukoteak *Soinuzko begiradak — Toma I* eta *Toma II* izenburupean bi CD grabatu ditu, eta hainbat ziklo eta jaialditan aritu da, hala nola Musika Hedatzeko Zentro Nazionalean (CNDM) Cáceresen eta Segovian, Juan March Fundazioan eta CentroCentron Madrilen, Donostiako Musika Hamabostaldian, Bilboko BBVA Fundazioan, Valentziako ENSEMSen, Rotterdameneko Classical: NEXT-en edo Montrealeko Le Vivier-en. Era berean, dibulgazio-jarduera bizia garatzen dute, bideoklipak grabatuz, konpositoreekin elkarrizketak eginez, tailerrak, etab.
Jarduera hauek guztien bitartez, Zukanek helburu nagusi bat lortu nahi du: musika egiteko modu berriak bilatzea eta gure garaiko sorkuntza publikoari hurbiltzea formatu alternatibo eta proposamen ezberdin, fresko eta originalen bidez.

Con una actividad que aúna tradición y modernidad, el Trio Zukan es uno de los conjuntos más originales y aclamados entre los surgidos en el ámbito de la música actual en los últimos años. Formado por txistu, acordeón y percusión, el trío ha hecho de su inusual combinación instrumental una fortaleza, proponiendo programas que invitan al público a descubrir las sorprendentes posibilidades de estos instrumentos tanto en acústico como en conjunción con la electrónica, los medios audiovisuales y puestas en escena performativas e innovadoras.
Desde su nacimiento en 2014, compositores como José María Sánchez-Verdú, María Eugenia Luc, Hugo Morales, Helga Arias, Juanjo Eslava, Zuriñe F. Gerenabarrena, Mikel Chamizo, Isabel Urrutia, Francisco Domínguez, Carolina Cerezo o Jagoba Astiazaran, entre muchos otros, han escrito obras para ellos.
El trío ha grabado dos CDs titulados *Soinuzko begiradak — Toma I* y *Toma II*, y ha actuado en ciclos y festivales como los del Centro Nacional de Difusión Musical (CNDM) en Cáceres y Segovia, Fundación Juan March y CentroCentro en Madrid, Quincena Musical de San Sebastián, Fundación BBVA de Bilbao, ENSEMS de Valencia, Classical:NEXT en Rotterdam o Le Vivier en Montreal. Desarrollan asimismo una intensa actividad divulgativa, que incluye la grabación de videoclips, entrevistas con los compositores, talleres, etc.
Mediante todas estas líneas de actividad, Zukan persigue un objetivo fundamental: buscar nuevas formas de hacer música y acercar la creación de nuestro tiempo al público a través de formatos alternativos y propuestas frescas, variadas y originales.

triozukan.com

# Miren LIZEAGA



Nacida en Donostia en 1993, realizó sus estudios profesionales de danza en el Conservatorio de Vitoria y en la Universidad de Danza Contemporánea y Música de Colonia (Alemania). Comenzó como bailarina profesional en la Compañía Dantzaz y, posteriormente, ha trabajado como freelance en compañías como Matxalen Bilbao, NODE, Teatro Paraíso e InPut. Actualmente forma parte de la compañía LASALA y de la compañía de Denis Martínez Roque, y alterna este trabajo con diferentes proyectos.

Donostian jaio zen 1993an, eta Gasteizko Kontserbatorioan eta Koloniako (Alemania) Dantza Garaikide eta Musikako Unibertsitatean egin zituen dantzako ikasketa profesionalak. Dantzari profesional gisa hasi zen Dantzaz konpainian eta, ondoren, freelance gisa lan egin du Matxalen Bilbao, NODE, Teatro Paraíso eta InPut konpainietan. Gaur egun, LASALA konpainiako eta Denis Martínez Roqueren konpainiako kide da, eta lan hori hainbat proiekturekin tartekatzen du.

## SOINUZKO BEGIRADAK

| | | |
|---|---|---|
| Zuriñe F. Gerenabarrena | *Harri, Haize, Harea*<br>acordeón microtonal, percusión, txistu y electrónica |
| María Eugenia Luc | *Begiratu bi*<br>acordeón, percusión y txistu |
| Juan José Eslava | *Desprendida voz*<br>acordeón, txistu, electrónica, percusión y vídeo |
| Francisco Domínguez | *Bertso*<br>acordeón microtonal, percusión y txistu |
| Hugo Morales | *Batuccata*<br>quijadas de caballo y tres músicos |

## TRIO ZUKAN

**Jon Ansorena,** txistua
**Gorka Catediano,** perkusioa
**Maria Zubimendi,** akordeoia

**Miren Lizeaga,** dantza

# Pavel GOMZIAKOV



Vótkinsk-en — Tchaikovskyren jaioterri berean — jaio zen 1975ean, eta Europa osoan, Hego Amerikan eta Japonian emanaldiak eskaini ditu.
Bakarlari gisa gonbidatu dute Japoniako Filarmonika Berriak, Londresko Ganbera Orkestrak, Montpellierreko Orkestra Nazionalak, Kansaiko Orkestra Filarmonikoak eta Lilleko Orkestra Nazionalak, besteak beste, eta Jesús López Cobos-en, Christopher Warren-Green-en eta Trevor Pinnocken zuzendaritzapean jardun izan du.
Halaber, San Petesburgoko White Nights jaialdian parte hartu zuen, Valery Gergievek gonbidatuta. Maria João Pires piano-jotzaile handiarekin batera kontzertuak eman ditu Parisko Eliseo Zelaien Antzokian, Genevako Victoria Aretoan, Madrilgo Errege Antzokian, Vienako Köln Philharmonie eta Konzerthausen, Lisboako CCBn eta Tokyoko Sumida Tryphony Aretoan. 2009an Deutsche Grammophon zigiluarekin argitaratutako Chopinen azken lanen grabazioak Grammy sarietarako izendapena jaso zuen.

Pavel Gomziakov ha actuado en toda Europa, América del Sur y Japón. Ha sido invitado como solista por la Nueva Filarmónica de Japón, Orquesta de Cámara de Londres, Orquesta Nacional de Montpellier, Orquesta Filarmónica de Kansai y Orquesta Nacional de Lille, dirigido por directores de la talla de Jesús López Cobos, Christopher Warren-Green y Trevor Pinnock entre otros. Además, también ha participado en el Festival White Nights en San Petesburgo bajo la invitación de Valery Gergiev. Pavel Gomziakov es uno de los músicos de cámara más demandados. Junto con la gran pianista María Joao Pires han ofrecido conciertos en salas tan importantes como el Teatro de los Campos Elíseos de París, Sala Victoria en Ginebra, Teatro Real en Madrid, Köln Philharmonie y Konzerthaus en Viena, CCB en Lisboa y la Sala Sumida Tryphony en Tokyo. Su grabación de las últimas obras de Chopin, bajo el sello Deutsche Grammophon y publicado en 2009, recibió una nominación a los Premios Grammy.

# Josu OKIÑENA



Andoainen jaio zen 1971n, eta bere jardun profesionala ikerkuntza eta interpretazioaren eremuan garatu ditu. Valladolideko Unibertsitatean doktorea da eta piano sari ugari jaso ditu. Felix Lavillarekin ikasi zuen, ondoren Julliard Schoolen eta Maria Curciorekin. Graduondoko ikastaroak eman ditu hainbat unibertsitatetan, eta munduko areto ospetsuenetan aritu da. Halaber, Nazioarteko Jaialdi ospetsuetan parte hartu du eta orkestra ospetsuekin kolaboratu du. 2011ko martxoan Euskal Herriko Unibertsitatearen eta Donostiako Orfeoiaren ikerketa-saria jaso zuen. 2019an Reno/Nevadako Unibertsitateak *The History of Basque Music* monografia argitaratu zuen eta, 2021ean, Deustuko Unibertsitatearekin batera, *La interpretación musical como proceso artístico y científico: dos dimensiones complementarias* saiakera argitaratu zuen. Egun, euskal kultura-ondarea berreskuratzen jarraitzen du, eta Pavel Gomziakov txelistarekin batera argitaratu duen euskal errepertorioaren grabazioa nabarmendu behar da.

josuokinena.com

Ha sido director del coro mixto Ederki en Valladolid (1972-1976), fundador y director del coro mixto Eskifaia en Hondarribia (1978-1994), fundador y director del coro femenino Kanta Cantemus Korua (1995-2007), y fundador y director del coro femenino Aquam Lauda Korua (2014-2024).

Sus obras corales se editan en el País Vasco, Alemania, Estados Unidos, Francia, Japón, Reino Unido y Suecia.

Ha sido invitado como director y jurado a diferente festivales y concursos en Alemania, Argentina, Bélgica, Canadá, España, Estados Unidos, Francia, Hungría, Italia, Japón, Suecia y Venezuela.

El 15 de junio de 2024 pondrá fin a 54 años como director de coro.

# CARCAVILLA, Iñaki

CARCAVILLA, Iñaki

Ayerben (Huesca) jaio zen 2001ean, eta Albéniz Musika Eskolan eta Santa Cecilia Folklore Eskolan hasi zituen musika-ikasketak. 2008an, Huescako Antonio Viñuales Musika Kontserbatorio Profesionalean sartu zen, tronboia eta biolontxeloa irakasteko.
2019an, Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiko konposizio-graduan onartua izan zen, eta Gabriel Erkoreka izan zen bere irakasle. Bertan, besteak beste, P. Dusapin, J. Schöllhorn, K. Saariaho, E. Canat de Chizy, T. Hosokawa, L. Codera eta R. García Tomas konpositoreen *masterclass*eak jasotzeko aukera izan du.
2023an Konposizio ikasketak ohorezko matrikularekin amaitu zituen, eta Musika Garaikidearen Sorkuntza Masterrera sartu zen. Bertan, Ensemble Ascoltarako (Stuttgart) eta Parisko Ensemble Court Circuit-erako lan egiteko eta konposatzeko aukera izan du.
Bere lanik berrienen artean, Bilbao Musikarako banda-obra bat, Ensemble Kuraiarako zenbait obra eta Bilbao Orkestra Sinfonikorako orkestra-obra bat enkargatu izana nabarmentzen da.

Nacido en Ayerbe (Huesca) en 2001, comienza sus estudios de música en la Escuela de Música Albéniz y en la Escuela de Folklore Santa Cecilia, ingresando en 2008 en el Conservatorio Profesional de Música de Huesca Antonio Viñuales para recibir docencia en las especialidades de Trombón y Violonchelo. En el año 2019 es admitido en el grado de Composición del Centro Superior de Música del País Vasco, Musikene, donde es alumno de Gabriel Erkoreka. En dicho centro ha tenido la oportunidad de recibir *masterclasses* de compositores como P. Dusapin, J. Schöllhorn, K. Saariaho, E. Canat de Chizy, T. Hosokawa, L. Codera y R. García Tomas, entre otros. En 2023 finaliza los estudios con matrícula de honor en Composición, y accede al Máster de Creación de Música Contemporánea, donde ha tenido la oportunidad de trabajar y componer para el Ensemble Ascolta (Stuttgart) y el Ensemble Court Circuit de París. Dentro de sus trabajos más recientes, destacan el encargo de una obra de banda para la Bilbao Musika, varias obras para el Ensemble Kuraia y una obra orquestal para la Orquesta Sinfónica de Bilbao.

DOMÍNGUEZ, Francisco

## DOMÍNGUEZ, Francisco

Alcolea de Calatravan (Ciudad Real) jaio zen 1993an. Biola ikasi zuen David Quiggle eta Natasha Twitchekin, eta konposizioa Gabriel Erkorekarekin Musikenen, ikasketak ohorezko aipamenarekin amaituz. Gainera, espezialitate horretako masterra ikasi zuen Kunst Universität Grazen (Austria), Beat Furrer eta Klaus Langekin, eta ohorezko aipamena lortu zuen. Besteak beste, Helmut Lachenmann, Ramon Lazkano, Hèctor Parra, Alberto Posadas eta Rebecca Saundersen eskolak jaso ditu. Parisko Espainiako Ikastetxearen saria, Pablo Sorozabal eta Francisco Escudero lehiaketetako lehen saria, Toru Takemitsu Konposizio Saria ko hirugarren saria eta Franz Schubert lehiaketan eta SGAE Fundazioaren Konpositore Gazteentzako Konposizio Lehiaketan ohorezko aipamenak jaso ditu.

2016an Peter Eötvös Fundazioaren Akademian parte hartu zuen, eta 2018an Gargonza Arts egoitza artistikoan parte hartzeko hautatu zuten. 2023an Edenkobengo (Alemania) Herrenshaus egoitza artistikoan parte hartu zuen eta gaur egun Peter Eötvös Fundazioaren Mentoring Programme delakoan parte hartzen du.

Nace en Alcolea de Calatrava (Ciudad Real) en 1993. Estudió viola con David Quiggle y Natasha Twitch, y composición con Gabriel Erkoreka en Musikene, terminando sus estudios con mención honorífica. Además, estudió el máster en dicha especialidad en la Kunst Universität Graz (Austria) con Beat Furrer y Klaus Lang, terminando también sus estudios con mención honorífica. Asimismo, ha recibido clases de Helmut Lachenmann, Ramon Lazkano, Hèctor Parra, Alberto Posadas y Rebecca Saunders, entre otros.

Ha recibido el premio del Colegio de España en París, el primer premio en los concursos Pablo Sorozabal y Francisco Escudero, el tercer premio en el Premio de Composición Toru Takemitsu y menciones de honor en el concurso Franz Schubert y en el Concurso de Composición para Jóvenes Compositores de la Fundación SGAE.

En 2016 participó en la Academia de la Fundación Peter Eötvös y en 2018 fue seleccionado para participar en la residencia artística Gargonza Arts. En 2023 participó en la residencia artística Herrenshaus en Edenkoben (Alemania) y actualmente participa en el Mentoring Programme de la Fundación Peter Eötvös.

DONOSTIA, José Antonio de

## DONOSTIA, José Antonio de

1886an jaio zen, Donostian. Izen laikoa José Gonzalo Zulaica Arregui zuen. Gaztetatik euskal musikaren alde egin zuen lan handiari esker, Aita Donostia izendatu zuten.

Ismael Echazarra izan zuen konposizioko lehen maisu, Lezarozko Ikastetxean ikasle zela. Bernardo de Gabiolarekin ikasten jarraitu zuen Donostian eta Adrià Esquerrarekin Bartzelonan.

1920an eta 1921ean, beregan eragin handia izan zuen Eugène Coolsekin ikasi zuen Parisen.

Teknika zaindu eta modernoz musika sakratuari arreta berezia eskaini bazion ere, orfeoirako euskal musikak eta pianorako *Euskal Preludioek* izan zuten arrakastarik handiena.

Egin zituen lan etnomusikologikoengatik, euskal folklorearen eta beste hainbat gairen erakusle sakona bihurtu zen.

Hamabi ale argitaratu dira bere musika lanekin eta beste 9 ale musika eta literatur-lanekin, horien artean *Cancionero vasco* bilduma. Genero guztietako musika-lanak idatzi zituen eta *Lied*-partitura ugari sortu zituen katalanez, gaztelaniaz, frantsesez eta euskaraz. Lekarozen hil zen 1956 urtean.

Nació en 1886 en San Sebastián. Su nombre laico era José Gonzalo Zulaica Arregui. Merced a la gran tarea que realizó desde su juventud por la música vasca, pasó a ser nominado popularmente Aita Donostia. Tuvo como primer maestro de composición a Ismael Echazarra, durante su estancia de estudiante en el Colegio de Lecároz. Continuó estudios con Bernardo de Gabiola en San Sebastián y con Adrià Esquerrá en Barcelona.

En 1920 y 1921 estudió en París con Eugène Cools, quien dejó en él una gran huella. Aunque prestó una atención especial a la composición de música sacra con una técnica depurada y moderna, se popularizaron más sus partituras orfeónicas vascas y sus *Preludios Vascos* para piano.

Sus trabajos etnomusicológicos le convirtieron en un profundo expositor de teorías sobre el folklore vasco y otros temas musicológicos. Su obra musical ocupa doce tomos editados y su obra literario-musical abarca nueve tomos, en los que está incluído su *Cancionero Vasco*. Su patrimonio musical abarca todos los géneros y entre ellos compuso muchas partituras de *Lied* en catalán, castellano, francés y euskera. Falleció en Lecároz en 1956.

## ELBERDIN, Josu

ELBERDIN, Josu

Pasaian (Gipuzkoa) jaio zen 1976an, eta bertako kontserbatorioan lortu zituen kantu eta piano irakasle tituluak. Era berean, Gizarte Hezkuntzan diplomatua da EHUn. Hainbat abesbatzen zuzendaritzan aritzeaz gain, Pasaiako Udal Musika Eskolako irakaslea da 2000. urtetik, eta Trintxerpeko Karmengo Andre Mariaren parrokiako organista 1991tik. Era berean, musika koralarekin lotutako ikastaroak ematen ditu, haur zein helduentzat, eta maiz epaimahaikide gisa aritzen da hainbat lehiaketa koraletan eta konposizioko lehiaketetan, bai nazio mailan, bai nazioartean. Konpositore gisa, sariak lortu ditu hainbat abesbatzen lehiaketatan, eta Tolosako Abesbatzen Lehiaketaren enkarguak jaso ditu, baita nazioarteko abesbatzen eta jaialdien enkarguak ere. Bere musika, batez ere, haurren eremuan eta, oro har, musika koralean oinarritzen bada ere, obra sinfoniko, pop-rock edo instrumentalen ekoizpen garrantzitsua ere badu. Walton, Helbling eta CM Ediciones Musicales argitaletxeek argitaratu dituzte bere lanetako batzuk.

Nace en Pasaia (Gipuzkoa) en 1976, en cuyo conservatorio obtiene los títulos de profesor de canto y piano. Es, a su vez, diplomado en Educación Social por la UPV. Además de dedicarse a la dirección de varios coros, es profesor de Escuela Municipal de Música de Pasaia desde el año 2000 y organista de la parroquia de Nª Sra. del Carmen en Trintxerpe desde 1991. Asimismo, imparte de forma regular cursos relacionados con la música coral, tanto infantil como adulta, y ejerce asiduamente como jurado en diversos concursos corales y de composición tanto a nivel nacional como internacional. En su faceta como compositor ha obtenido premios en diversos concursos corales y ha recibido encargos tanto del Certamen de Masas Corales de Tolosa como de un progresivo número de corales y Festivales del panorama internacional. Si bien su música está fundamentalmente centrada en el ámbito infantil, y en general en la música coral, cuenta también con una importante producción de obras de carácter sinfónico, pop-rock o instrumental. Algunas de sus obras han sido publicadas por las editoriales Walton, Helbling y CM Ediciones Musicales.

**http://elberdin.com/**

# ESLAVA, Juan José

ESLAVA, Juan José

1970ean Gijonen jaioa, Zaragoza, Paris eta IRCAMeko kontserbatorioetan konposizioa ikasi zuen, baita Szombathely (Hungaria), Veruela (Espainia), Centre-Acanthes eta Foundation Royaumont-Voix-Nouvelles (Frantzia) ikastaroetan ere.

Pablo Sarasate Fundazioaren eta Donostiako Musika Hamabostaldiaren enkarguak jaso ditu, eta nazioarteko hainbat jaialditan parte hartu du, hala nola Festival d´Art Lyrique 1998 edo Résonnances 2004 (Frantzia), Sinkro-2006 (Espainia), SICMF-2007 (Korea), Transitio-2007 (Mexiko) eta Jornadas Argentinas de Música Contemporánea-2007. Halaber, konpositore-ikertzailea izan da IRCAMen (Paris) eta Kunitachi-College-of-Music Unibertsitateko Sonology Department-en (Japonia).

Arte Elektronikoko Nazioarteko Transitio (Mexiko) Jaialdiaren Lehiaketako finalista, ICMC jaialdiaren Europako obrarik onenaren Regional Prize saria, *Skin´s Traces* lanagatik. Katalogoan orkestra, ganbera, ahots, instrumentu eta elektronika-musika, hainbat instalazio eta proposamen performatibo eta Jorge Oteiza eskultoreari buruzko opera daude.

Bestalde, E7.2 talde artistikoko kide gisa, arte garaikideko *After Cage* jaialdiaren hamar edizio antolatu ditu Iruñean. Gaur egun Konposizio eta Orkestrazioko irakaslea da Nafarroako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan.

Nacido en Gijón en 1970, estudia composición en los conservatorios de Zaragoza, París y el IRCAM, así como en los cursos de Szombathely (Hungría), Veruela (España), Centre-Acanthes y Foundation Royaumont-Voix-Nouvelles (Francia).

Ha recibido encargos de entidades nacionales como la Fundación Pablo Sarasate y la Quincena Musical donostiarra, y ha participado en diversos festivales internacionales como el Festival d´Art Lyrique 1998 o Résonnances 2004 (Francia), Sinkro-2006 (España), SICMF-2007 (Corea), Transitio-2007 (México) y las III Jornadas Argentinas de Música Contemporánea-2007. Asimismo, ha sido compositor-investigador en el IRCAM (París) y en el Sonology Department de la Universidad Kunitachi-College-of-Music (Japón).

Finalista del Concurso Internacional de Arte Electrónico del Festival Transitio (México) y Regional Prize a la mejor obra europea del festival ICMC por *Skin´s Traces*, su catálogo incluye música orquestal, camerística, vocal, instrumental y electronica, así como diversas instalaciones y propuestas performativas, y una ópera sobre el escultor Jorge Oteiza.

Por otro lado, como miembro del colectivo artístico E7.2, ha organizado diez ediciones del festival *After Cage* de arte contemporáneo en Pamplona. Actualmente es profesor de Composición y Orquestación en el Conservatorio Superior de Música de Navarra.

## ETXEANDIA LARREA, Jon

ETXEANDIA LARREA, Jon

1960ko abenduaren 23an jaioa, klarinete eta harmonia ikasketak egin zituen Getxoko Kontserbatorioan —egungo Andrés Isasi Musika Eskolan—, eta UPV/EHUko Irakasletzan diplomatu zen.
1989tik Bilboko Urretxindorra ikastolako musika eta ingeles irakaslea, Uribe Martiartu Merindadeko txistulari taldeko kidea izan da, baita Zubipeko Swing eta Marmara Jazz Taldeko kide ere. Durangoko Silboberri Txistu Elkarteko ohiko kolaboratzailea ere bada, eta *Zubipeko's Novelty* (2002), *Aitorrena* (2002), *Mesedez maitia egon geldirik* (2003), *Agur nere bihotzeko jaioterri maitea* (2005) edo *Glamour* (2008) lanak argitaratu ditu.

Nacido el 23 de diciembre de 1960, realizó estudios de clarinete y armonía en el Conservatorio de Getxo —actual Escuela de Música Andrés Isasi— diplomándose, asimismo, en Magisterio por la UPV/EHU. Profesor de música e inglés en la ikastola Urretxindorra de Bilbao desde el año 1989, ha sido integrante de la agrupación de txistularis de la Merindad de Uribe Martiartu, así como miembro de las formaciones jazzísticas Zubipeko Swing y Marmara Jazz Taldea. También es colaborador habitual de la asociación Silboberri Txistu Elkartea de Durango, habiendo publicado sus obras *Zubipeko's Novelty* (2002), *Aitorrena* (2002), *Mesedez maitia egon geldirik* (2003), *Agur nere bihotzeko jaioterri maitea* (2005) o *Glamour* (2008).

## ETXEBARRIA, Aitor

ETXEBARRIA, Aitor

Aitor Etxebarria (Gernika, 1985) perkusionista eta piano-joleak instrumentu elektroniko eta akustikoen sonoritateak konbinatzen ditu bere obran, hala nola pianoak eta sintetizadoreak, post-rock paisaietatik hasi eta ingurumen-agertoki minimalistetaraino sar daitezkeen pista elektronikoekin batera. Bere obraren artean *Gernika* nabarmentzen da, Evelyn Glennie perkusio jotzaile eskoziarrarekin batera egina, Bilboko Orkestra Sinfonikoak estreinatua, eta soinu-banda ugari, hala nola *Markak* dokumentalekoak eta *Mentiras pasajeras* (Movistar) eta *Intimidad* eta *Cuerpo en llamas* serieak, biak Netflix plataforman estreinatuak.

Percusionista y pianista nacido en Gernika en 1985, en su obra compositiva combina las sonoridades de instrumentos acústicos y electrónicos como pianos y sintetizadores, junto a pistas electrónicas, logrando sonoridades que pueden llegar a incluir desde paisajes *post-rock* hasta escenarios ambientales de tinte minimalista.
Entre su producción destaca la obra *Gernika* —realizada junto a la percusionista escocesa Evelyn Glennie— estrenada por la Orquesta Sinfónica de Bilbao, además de un número significativo de bandas sonoras, como es el caso de las relativas al documental *Markak* y a las series televisivas *Mentiras pasajeras* (Movistar) e *Intimidad* y *Cuerpo en llamas*, estrenadas ambas en la plataforma Netflix.

# FRACA ROYO, Luis

Ainzonen (Zaragoza) jaio zen 1929an. Zarautzen hasi zituen musika-ikasketak Javier Goicoechea eta Bárbara Arangurenekin. Berehala, herriko bandan sartu zen klarinetea jotzera. Pianoa, harmonia eta konposizioa ikasi zituen Ramón Usandizaga eta Beltrán Pagolarekin Donostiako Kontserbatorioan, non karrera amaierako saria jaso baitzuen 18 urterekin. Udaletxearen beka bati esker, Madrilen ikasketak zabaldu zituen Conrado del Campo, Nemesio Otaño eta José Cubilesekin. Istripu baten ondorioz pianista-karrera alde batera utzi behar izan zuen. Banden munduan murgildu zen orduan, eta Sestao, Sos del Rey Católico eta Caspeko bandak zuzendu ondoren, 1958an Andoaingo bandako zuzendari izendatu zuten. 1972an Andoaingo udal akademiako zuzendari izendatu zuten. Bertan, piano eta gitarra eskolak ematen zituen eta hainbat musika talde sortu zituen. Andoainen eta Errenterian, besteak beste, piano kontzertuak eman zituen. 1989an gorreriak jota, erretiroa hartu zuen. Ordutik, Andoainen, Ainzonen, Zarautzen eta Teneriferen artean bizi izan zen.

Irakaskuntzaz gain, musikagintza eta inprobisazioa uztartu izan zituen. Pianorako obrak idatzi zituen batez ere, nahiz eta orkestrarako, gitarrarako, clavinovarako obrak ere egin zituen, eta baita ganbera-musika edo korurako musika ere. 1974tik aurrera, bere inprobisazioen grabazio ugari egin zituen teklatuan. Bere hitzetan, musika, inprobisazioak batez ere, bere gozamenerako edo entretenimendurako egiten zituen.

Zaragozan hil zen, 2024ko urtarrilaren 13an.

Nace en Ainzón (Zaragoza) en 1929. Comienza los estudios musicales en Zarautz con Javier Goicoechea y Bárbara Aranguren. Pronto ingresa en la Banda como clarinete. Asimismo, cursa piano, armonía y composición con Ramón Usandizaga y Beltrán Pagola en el Conservatorio de San Sebastián, donde recibe el premio fin de carrera a los 18 años. Amplía sus estudios en Madrid gracias a una beca del Ayuntamiento, estudiando con Conrado del Campo, Nemesio Otaño y José Cubiles. Un accidente interrumpe su carrera como pianista. Se centra en el mundo de las bandas, dirigiendo las de Sestao, Sos del Rey Católico y Caspe y, en 1958, obtiene por oposición el cargo de director de la Banda de Andoain. En 1972 asume la dirección de la Academia Municipal de la mencionada localidad, donde imparte clases de piano y guitarra, además de crear distintas agrupaciones musicales. Ofrece algunos recitales de piano en Andoain, Errenteria, etc. Afectado por un síndrome relacionado con la sordera, se jubila en 1989 y desde entonces alterna su residencia entre Andoain, Ainzón, Zarautz y Tenerife. Compaginó la actividad docente con la composición y la improvisación. Compuso mayoritariamente obras para piano, además de algunas piezas para orquesta, clavinova, guitarra, cámara o coro. Desde 1974 realizó numerosas grabaciones de sus improvisaciones al teclado. Según sus palabras, la música, sobre todo las improvisaciones, las hace para su propio disfrute o entretenimiento.

Falleció el 13 de enero de 2024 en Zaragoza.

# GARBIZU, Tomás

GARBIZU, Tomás

Lezon jaio zen 1901eko irailaren 12an. Bere herriko parrokiako koruan abestu zuen haurra zelarik. Anaia Joseren eskutik hasi zen pianoan, apaiza baitzen. Urte batzuk Arantzazuko seminarioan ikasi zuen, Garbizuren bihotzean arrasto handia utzi zuena. Ondoren, Donostiako Kontserbatoriora joan zen, eta han José M.ª Iraola eta Beltrán Pagola izan zituen irakasle. Haiekin pianoa eta harmonia ikasi zituen, hurrenez hurren. Organo ikasketak egin zituen Madrilgo Kontserbatorioan eta, geroago, Parisen, Charles Leboutekin.
Madrilgo Enbaxada Frantsesaren organista ofiziala izan zen. 1954tik Donostiako Kontserbatorioan organo katedra bete zuen erretiroa hartu zuen arte.
Tomas Garbizu musikagilea zen interpretea baino gehiago. Honenbestez, mota guztietako lanen funts handia utzi digu: musika erlijioso ugari, euskal musika korala, txisturako, *liederako*, pianorako, organorako, ganbera-musikarako, oratorioetarako, zarzuelarako eta abarretarako.
2018az geroztik, ERESBILek musika artxibo eta liburutegia gordetzen ditu.
Bere katalogoan *Missa Benedicta* eta beste meza batzuk, moteteak eta musika liturgikoko piezak, *Jesús y la samaritana* (Tríptico al Buen Pastor) eta organorako beste lan batzuk, korurako euskal gaiei eta ez euskaldunei buruzko piezen zerrenda luzea, *Babilon beltza*, *Osanbela* (Baso Jaun), *Danos la paz, Aloña* eta abar daude.
Donostian hil zen 1989ko azaroaren 27an.

Nació en Lezo el 12 de septiembre de 1901. Fue niño de coro en su parroquia. Se inició en el piano de la mano de su hermano José, sacerdote. Estudió algunos años en el Seminario de Aránzazu, que dejó una gran huella en el corazón de Garbizu. Después pasó al Conservatorio de San Sebastián, donde tuvo como profesores a José M.ª Iraola y Beltrán Pagola, con quienes estudió piano y armonía, respectivamente. Amplió estudios de órgano en el Conservatorio de Madrid y, más tarde, en París con Charles Lebout.
Fue organista oficial en la Embajada Francesa en Madrid. Desde 1954 desempeñó la cátedra de órgano en el Conservatorio de San Sebastián hasta su jubilación, promocionando importantes discípulos.
Tomás Garbizu era más compositor que intérprete. Así es como nos ha legado un gran fondo de obras de todo género: abundante música religiosa, música coral vasca, para txistu, *lied*, piano, órgano, música de cámara, oratorios, zarzuela, etc. Desde el año 2018 ERESBIL conserva su archivo y biblioteca musical.
Su catálogo incluye la *Missa Benedicta* y otras misas, motetes y piezas de música litúrgica, *Jesús y la samaritana (Tríptico al Buen Pastor)* y otras obras para órgano, una larga lista de piezas sobre temas vascos y no vascos para coro, los poemas sinfónicos *Babilon beltza*, *Osanbela (Baso Jaun)*, *Danos la paz*, *Aloña*, etc.
Falleció en San Sebastián el 27 de noviembre de 1989.

GERENABARRENA, Zuriñe F.

# GERENABARRENA, Zuriñe F.

Gasteizen jaio zen 1965ean, eta konposizioa ikasi zuen Carmelo Bernaolarekin Jesús Guridi Kontserbatorioan, eta Franco Donatonirekin Milango Scuola Civican.
Orkestra, ensemble, antzerki, dantza, akusmatika, soinu-instalazio eta diziplina anitzeko ikuskizunetarako piezak idatzi ditu.
Europako hainbat herrialdetako, Japoniako, Mexikoko eta AE-Betako jaialdi eta agertokietan programatzen diren lanak idazteko enkarguak eta laguntzak jaso ditu.
Artista egoiliarra izan da Notam (Oslo), EMS (Stockholm), ZHdk/ICST (Zurich), Shiro Oni (Onishi, Japonia), Tokyo Wonder Site, Studio Alpha-VICC (Visby, Suedia), USF Verfet (Bergen, Norvegia) eta LEC laborategian (Lisboa). Halaber, INAEM, CDMC, Eusko Jaurlaritza, Musika Hamabostaldia, Euskadiko Orkestra, KREA, Autore Fundazioa, BOS, Mikel Laboa Katedra, BBVA Fundazioa, Konstnärsnämnden, Musikene Sinfonietta, Etxepare Institutua eta abarren enkarguak eta laguntzak jaso ditu.
Sorkuntza eta Harmonia, Kontrapuntua eta Elektroakustikaren oinarriak irakasten ditu Konposizioa espezialitatean, baita Konposizioa elektroakustiko baliabideekin ere, Musika Garaikidea Sortzeko Masterrean, Musikenen.

Nacida en Vitoria-Gasteiz en 1965, estudió composición con Carmelo Bernaola en el Conservatorio Jesús Guridi, y con Franco Donatoni en la Scuola Civica de Milán.
Ha escrito piezas para orquesta, ensemble, teatro, danza, acusmática, instalaciones sonoras y espectáculos multidisciplinares.
Ha recibido encargos y ayudas para la escritura de obras que son programadas en festivales y escenarios de diversos países de Europa, así como en Japón, México y EE. UU.
Ha sido artista residente en Notam (Oslo), EMS (Estocolmo), ZHdk/ICST (Zúrich), Shiro Oni (Onishi, Japón), Tokyo Wonder Site, Studio Alpha-VICC (Visby, Suecia), USF Verfet (Bergen, Noruega) y en el Laboratorio LEC (Lisboa). Asimismo, ha recibido encargos y ayudas del INAEM, CDMC, Gobierno Vasco, Quincena Musical, Euskadiko Orkestra, KREA, Fundación Autor, BOS, Mikel Laboa Katedra, Fundación BBVA, Konstnärsnämnden, Musikene Sinfonietta, Instituto Etxepare, etc.
Combina la creación con la enseñanza de Armonía, Contrapunto y Fundamentos de electroacústica en la especialidad de Composición, así como de Composición con medios electroacústicos en el Máster de Creación de Música Contemporánea en Musikene.

www.zfgerenabarrena.com

# GOICOECHEA AIZCORBE, José María

GOICOECHEA AIZCORBE, José María

Beran (Nafarroa) jaio zen 1924an. Musikagilea eta organista izan zen eta lehen musika klaseak Alfonso Ugarteren eskutik Lizarran jaso zituen. Musika ikasketak Antonio Pararekin Madrilen jarraitu zituen, eta Erroman Giuseppe Cianfrigliarekin. Higinio Anglés eta Eugène Cardinerekin ere ikasi zuen Musika Sakratuaren Institutu Pontifikalean. Iruñera itzuli zenean, Fernando Remacharekin konposizioa eta Luis Tabernarekin organoa ikasi zituen, eta Franco Donatoniren udako eskoletara joan zen Sienako Chigiana Akademian. 1964an, Niños Cantores de Navarra eskolania sortu zuen, eta, horrekin, hainbat sari lortu zituen, hala nola Madrilgo haur eta gazte abesbatzen UNICEF lehiaketa nazionaleko lehen saria. 1989an, Liguori Abesbatza sortu zuen ikasle ohiekin, eta bertako zuzendaria izan zen. Bere bi lan koralek, *Yaiki Maria* eta Katalin Txiki, Tolosako Haur Konposizioaren Nazioarteko Lehiaketan lehen saria irabazi zuten 1991 eta 1992 urteetan. Obra gehienak ez dira argitaratu eta Iruñeko Aita Erredentziotarren komentuko artxibo-liburutegian gordetzen dira. 2009an Iruñeko Ganbera Abesbatzak *Luis Morondo saria* eman zion. Santanderren hil zen 2017ko uztailaren 13an.

Nace en Vera de Bidasoa (Navarra) en 1924. Compositor y organista, recibió sus primeras clases de Alfonso Ugarte en Estella y continuó sus estudios musicales en Madrid con Antonio Parra y en Roma con Giuseppe Cianfriglia. También estudió con Higinio Anglés y Eugène Cardine en el Instituto Pontificio de Música Sacra. De regreso a Pamplona, estudió composición con Fernando Remacha y órgano con Luis Taberna, además de asistir a las clases estivales de Franco Donatoni en la Academia Chigiana de Siena. En 1964 fundó la escolanía Niños Cantores de Navarra, con la que obtuvo diversos premios como el Primer Premio en el concurso nacional UNICEF de coros infantiles y juveniles de Madrid. En 1989 fundó con antiguos escolanos la Coral Liguori, de la que fue director. Sus dos obras corales *Yaiki Maria* y *Katalin txiki* ganaron el primer premio en el Concurso Internacional de Composición Infantil de Tolosa en los años 1991 y 1992. La mayor parte de su obra permanece inédita y se encuentra guardada en el archivo-biblioteca del convento de los Padres Redentoristas de Pamplona. En 2009 la Coral de Cámara de Pamplona le otorgó el premio Luis Morondo. Falleció en Santander el 13 de julio de 2017.

GOICOECHEA, Vicente

## GOICOECHEA, Vicente

Aramaioko Ibarran (Araba) jaio zen 1854an. Musikari-familia batekoa zen, eta pianoa ikasi zuen unibertsitate-ikasketak egin zituen aldi berean, Oñatin hasi eta Valladoliden amaituz, 1877an. 1881ean notario-titulua lortu zuen, baina ez zuen ogibidean jardun. Geroago, apaizgoak erakarrita, Valladolideko Seminarioan egin zituen eliz ikasketa guztiak. 1890ean, oposizioen bidez, hiri horretako katedraleko kapera-maisu kargua lortu zuen. Felipe Gorriti izan zuen maisu bakarra, eta harekin kontrapuntua eta fuga ikasi zituen.

Vatikanoak Pio X.aren *Motu Proprio*ren bidez sustatutako musika liturgikoaren erreformari aurrea hartu zion ia hamarkada batean, eta, hala, Espainiako mugimendu erreformistaren buru bihurtu zen.

Goicoecheak arreta handiz hezi zuen Katedralaren Kapera, 1915. urtera arte zuzendu zuena, eta horretarako konposatu zituen bere obra gehienak. Gainera, Orfeó Vasco-Navarro sortu zuen, zuzenbideko eta medikuntzako euskal ikasleez osatua.

Erlijio-musika idatzi zuen batez ere, eta, besteak beste, *Christus factus est* estimatua, hainbat meza eta hil osteko azken requiem meza idatzi zituen. Valladoliden hil zen 1916an.

Nace en Ibarra de Aramayona (Álava) en 1854. Perteneciente a una familia de músicos, estudió piano al mismo tiempo que cursaba los estudios universitarios, que inició en Oñati y finalizó en Valladolid en 1877. En 1881 obtuvo el título de notario, aunque no llegó a ejercer. Más tarde, sintiéndose llamado al sacerdocio, cursó toda la carrera eclesiástica en el Seminario de Valladolid. En 1890 obtuvo, mediante oposiciones, el cargo de maestro de capilla de la Catedral de dicha ciudad. Su único maestro fue Felipe Gorriti, con quien estudió contrapunto y fuga.

Se adelantó a la reforma de la música litúrgica promovida por el Vaticano a través del *Motu Proprio* de Pío X en casi una década, convirtiéndose así en la cabeza visible del movimiento reformista en España.

Goicoechea consiguió educar con esmero a la Capilla de la Catedral, que regentó hasta 1915, y para la cual compuso la mayor parte de sus obras. Fundó, además, el Orfeón Vasco-Navarro, integrado por valiosos elementos entre los estudiantes vascos de derecho y medicina.

Es autor fundamentalmente de música religiosa, entre la que destaca un apreciado *Christus factus est*, varias misas y una última misa de réquiem póstuma. Fallece en Valladolid el año 1916.

Griffin, Alan

# Griffin, Alan

Ennisen (Clare konderria, Irlanda) jaio zen 1952an, eta 1984an iritsi zen Donostiara, literaturako doktorego bat zela eta. Behin hemen finkaturik, irlandar izaeraren exotismoak eta haizezko instrumentuak jotzeko zuen gaitasunak, folk musikaren mundurako sarbidea erraztu zioten, eta handik gutxira, Txomin Artola eta Amaia Zubiriaren laguntzaile bihurtu zen, eta haiekin hainbat disko grabatu zituen.
1993an Alboka taldea sortu zuen, nahiz eta hasieran ez zuen musika-tresna hau jotzen. Berez, taldearen lehen diskoan (1994) behin bakarrik entzuten da alboka eta, Griffinek grabazio-estudiora sartu baino astebete lehenago utzi zioten instrumentu batekin grabatu zuen. Taldearentzat hamaika doinu tradizional egokitu eta moldatu zituen, eta euskal tradizio herrikoian oinarritutako pieza berri ugari konposatu zituen, bost disko grabatu eta Euskal Herrian nahiz atzerrian kontzertuak eman zituzten.
Alboka taldearekin egindako jardueraz gain, beste artista batzuekin ere aritu zen elkarlanean: Olatz Zugasti, Gorka Knörr, Juan Mari Beltrán, Joxan Goikoetxea, Aitor Amezaga, Kalakan, Brian Finnegan & William Coulter, Laoise Kelly & Tóla Custy, The Loose Roots Band, Arkaitz Miner edo Khami, besteak beste. 2006an Aintzina taldea sortu zuen, euskal tradizioko abesti narratibo argitaragabeak berreskuratzeko eta albokarako kantu berriak interpretatzeko.
Noizbehinka artikuluak idazten zituen Interfolk aldizkarian, eta 2016an, *Halfway to Hell: Albokarako 332 doinu liburua* argitaratu zuen, eta, 2023an, *La puerta abierta: baladas vascas y internacional*.
2023ko abenduaren 5ean hil zen.

Nacido en Ennis (Condado de Clare, Irlanda) en 1952, llegó a Donostia en 1984 con motivo de un doctorado en literatura. Una vez asentado aquí, el exotismo de su condición de irlandés y su capacidad para tocar instrumentos de viento le facilitaron el acceso al mundo de la música folk, convirtiéndose, al poco tiempo, en acompañante de Txomin Artola y Amaia Zubiria, con los que grabará varios discos.
En 1993 fundó la agrupación Alboka, si bien en un principio no tocaba este instrumento. De hecho, en el debut discográfico de la agrupación (1994) hay únicamente un corte en el que se puede escuchar la alboka, que Griffin grabó con un instrumento que le prestaron solo una semana antes de entrar al estudio de grabación. Para el grupo adaptó y arregló infinidad de melodías tradicionales y compuso numerosas piezas nuevas basadas en la tradición popular vasca, llegando a grabar cinco discos y actuando tanto en Euskal Herria como en el extranjero.
Además de su actividad con Alboka, ha colaborado con otros artistas como Olatz Zugasti, Gorka Knörr, Juan Mari Beltrán, Joxan Goikoetxea, Aitor Amezaga, Kalakan, Brian Finnegan & William Coulter, Laoise Kelly & Tóla Custy, The Loose Roots Band, Arkaitz Miner o Khami, entre otros, y en 2006 fundó el grupo Aintzina, dedicado a la recuperación de canciones narrativas inéditas de la tradición vasca y a la interpretación de temas nuevos para la alboka.
Articulista ocasional para la revista *Interfolk*, en 2016 publicó el libro *Halfway to Hell: Albokarako 332 doinu* y, en 2023, *La puerta abierta: baladas vascas e internacionales*.
Falleció el 5 de diciembre de 2023.

GURIDI, Jesús

## GURIDI, Jesús

Gasteizen jaio zen, 1886an. Madrilen burutu zituen musika-ikasketak. Gerora, Bilbon jarraitu zituen Sainz Basaberekin, eta Pariseko Schola Cantorumen, Vincent d´Indyrekin; Bruselan, Joseph Jongenekin eta Kolonian Otto Neitzelekin sakondu zituen. 1912az geroztik, Bilboko Koru Elkarteko zuzendaria izan zen eta musikagile etapa oparoari ekin zion musika genero guztiak landuz: koruentzako musika erlijiosoa, organorako musika, orfeoirako musika, ganbera-musika (harizko laukote bi), musika sinfonikoa (*Sinfonia pirenaica*, *Homenaje a Walt Disney*), lirikoa (*Mirentxu*, *Amaia*, *El Caserío*, *Mari-Eli*, *Peñamariana*...), zinerako musika, etab. 1939an, Madrila joan zen bizitzera. Organo Katedraduna izan zen Madrileko Goi-mailako Kontserbatorioan, eta 1956az geroztik bertako zuzendaria, 1961ean zendu zen arte.

Nació en 1886 en Vitoria-Gasteiz. Hizo sus primeros estudios musicales en Madrid. Los continuó en Bilbao con Sainz Basabe y amplió en la Schola Cantorum de París con Vincent d'Indy y, más tarde, en Bruselas con Joseph Jongen y Colonia con Otto Neitzel. Desde 1912 fue director de la Sociedad Coral de Bilbao e inició una brillante etapa de compositor, escribiendo en todos los géneros: música religiosa, para coros, órgano, orfeónica, música de cámara (dos cuartetos de cuerda), sinfónica (*Sinfonía Pirenaica, Homenaje a Walt Disney*), lírica (*Mirentxu, Amaya, El Caserío, Mari-Eli, Peñamariana…*), música de cine, etc. En 1939 fijó su residencia en Madrid. Desempeñó la cátedra de órgano en el Real Conservatorio, del que fue director desde 1956 hasta su muerte en 1961.

HERNÁNDEZ, Idoia "HATXE"

## HERNÁNDEZ, Idoia "HATXE"

Errenterian jaio zen 1988an eta Oiartzungo Ibargain eskolan hasi zituen piano ikasketak. Ingeniaritza ikasketak egin ondoren, 2014an berriz ekin zion musika prestakuntzari, Fredi Pelaez eta Asier López Iraolaren eskutik.
2017an argitaratu zuen bere lehen lana, *Lehena*, piano hutsezko 11 piezako diskoa, eta, 2020an, *Panpin hautsien dantza* —Peru Galbeteren ahotsarekin, Jurdana Otxoaren biolinarekin eta Ilargi Agirreren perkusioarekin batera—, 2022an kaleratu zuena. Aldi berean, *2bat* proiektua Óscar Manso poeta eta musikariarekin partekatzen du eta Metrokoadroka Sormen Laborategia kolektiboarekin hainbat ikuskizun performatibotan parte hartzen du.
Ai Do Project eta NeriHari dantza konpainien enkarguak jaso ditu, baita EIZIE elkartearen *Senez* aldizkariaren 50. zenbakia ospatzeko abestiaren konposizioarenak ere.
Era berean, Kukai eta Hika Teatro konpainiekin, Eneko Gil dantzariarekin edo Booktegirekin kolaboratu du, eta plataforma horretarako musikatu zuen Harkaitz Canoren *Azken aurreko manifestua*. Gainera, Errenteriako Mikelazulo Kultur Elkarteko kide da.

Nace en Errenteria en 1988 e inicia los estudios de piano en la escuela Ibargain de Oiartzun. Tras realizar los estudios de Ingeniería, en 2014 retoma su formación musical de la mano de Fredi Peláez y Asier López Iraola.
En 2017 publica su primer trabajo, *Lehena*, un disco de 11 piezas a piano solo y, en 2020, *Panpin hautsien dantza* —junto a la voz de Peru Galbete, el violín de Jurdana Otxoa y la percusión de Ilargi Agirre—, cuya segunda parte verá la luz en 2022. Paralelamente, comparte el proyecto *2bat* con el poeta y músico Óscar Manso y participa en varios espectáculos performativos con el colectivo *Metrokoadroka Sormen Laborategia*.
Ha recibido encargos de las compañías de danza Ai Do Project y NeriHari, así como para la composición de la canción destinada a la celebración del número 50 de la revista *Senez* de la asociación EIZIE.
Asimismo, ha colaborado con las compañías Kukai e Hika Teatro, el bailarín Eneko Gil o Booktegi, plataforma para la que musicalizó el manifiesto *Azken aurreko manifestua* de Harkaitz Cano. Además, forma parte de *Mikelazulo Kultur Elkartea* de Errenteria.

LAVILLA, Félix

## LAVILLA, Félix

Iruñean jaio zen 1928an eta musika ikasketak Donostian egin zituen. Pianoko karrera amaitu zuen birtuosismoko ikastaroak eginez Goi Mailako Musika Kontserbatorioan José Cubilesekin. Arrakasta handia lortu zuen Europa, Amerika, Afrika, Japonia eta Salzburgo, Australia, Osaka, Bergen eta Leeds-eko nazioarteko jaialdietan, Teresa Berganza, Victoria de los Ángeles, Carlo Bergonzi, Pilar Lorengar, Maurice Gendron, Gaspar Cassadó, Agustín León Ara, Pedro Corostola edo Jessy Norman bezalako artistekin. Madrileko Goi Mailako Kantu Eskolako errepertorio estilistika-bokaleko katedraduna izan zen eta baita Granadako Manuel Falla Nazioarteko Ikastaroetan ere. Ganbera-musikaren espezialitatean irakasle eta interprete bezala zuen ospeagatik, Iparramerikako hainbat unibertsitatetan ikasketa magistralak eman zituen. Kantu eta pianorako obrak konposatu zituen bereziki.

Decca, Deutsche Grammophon eta Columbiarekin disko ugari editatu zituen. Madrilen 2013 urtean hil zen.

Nace en Pamplona en 1928 y cursa estudios de música en San Sebastián. Termina su carrera de piano realizando los cursos de virtuosismo en el Real Conservatorio Superior de Música con José Cubiles. Obtiene éxitos importantes de público y crítica en las giras mundiales por Europa, América, África, Japón y en los festivales internacionales de Salzburgo, Australia, Osaka, Bergen y Leeds con artistas como Teresa Berganza, Victoria de los Ángeles, Carlo Bergonzi, Pilar Lorengar, Maurice Gendron, Gaspar Cassadó, Agustín León Ara, Pedro Corostola o Jessy Norman.

Ha sido catedrático de repertorio estilístico-vocal en la Escuela Superior de Canto de Madrid y en los Cursos Internacionales Manuel de Falla de Granada. Su prestigio internacional como profesor e intérprete en la especialidad de música de cámara, le ha llevado a impartir clases magistrales en diversas universidades de Norteamérica. Es autor de obras para canto y piano principalmente.

Posee una amplia discografía con firmas como Decca, Deutsche Grammophon y Columbia. Fallece en Madrid el año 2013.

# LAZKANO, Ramon

Donostian jaio zen 1968an. Juan Padrosarekin pianoa eta Francisco Escuderorekin konposizioa ikasi zituen, bere jaioterrian, Alain Bancquart eta Gérard Griseyrekin Parisen, eta Gilles Tremblayrekin Montrealen. Parisko CNSMren Lehen Konposizio Saria eskuratu zuen eta Musikologiako DEA Gizarte Zientzietako Goi Mailako Ikasketen Eskolan.
Besteak beste, Monakoko Prince Pierre Fundazioaren Konposizio Saria eta Frantziako Arte Ederren Akademiaren Georges Bizet Saria jaso ditu, baita Musika Bulegoa Saria ere, bi aldiz. 2019an, Alfonso Gómezek Kairos zigilurako grabatutako pianorako bere obra osoak Frantziako Charles Cros akademiaren Grand Prix du Disque saria jaso zuen.
Espainiako Errege Akademiako eta Frantziako Akademiako bekaduna izan zen Erroman, JONDErekin egoiliarra izan zen Estrasburgoko Musika Jaialdian, Luis de Pablorekin batera, Ensemble 2e2mrekin Parisen, Saint-Jean-de-Luz.eko Ravel Akademian eta Civitella-Ranieri Fundazioan Italian. Monte Carloko Musika Kontseiluko kide iraunkorra da.
Parisko Udazkeneko Jaialdiak erretratu bat eskaini zion 2016an, *Ravel* (Scènes) obraren enkarguarekin; 2023an, Alexandre Tharaudek, Koloniako WDR Orkestrarekin eta Euskadiko Orkestrarekin, *Mare Marginis* pianorako bigarren kontzertua estreinatu zuen. 2001 eta 2011 artean *Igeltsoen Laborategian* lan egin zuen, “Laborategi esperimentalaren” kontzeptu oteiziarra erreferentziatzat hartzen duen lanen bilduma, klariona inskripzioaren, higaduraren eta haurtzaroari lotutako memoriaren gai gisa, eta helburu estetikoa *Mugarri* (2010) lanarekin amaiu zena.
Orkestrazio irakaslea da Musikenen.

Nace en Donostia-San Sebastián en 1968. Estudió piano con Juan Padrosa y composición con Francisco Escudero en su localidad natal, con Alain Bancquart y Gérard Grisey en París, y con Gilles Tremblay en Montreal. Obtuvo el Primer Premio de Composición del CNSM de París y el DEA en Musicología en la École des Hautes Études en Sciences Sociales. Ha recibido, entre otros, el Premio de Composición de la Fundación Prince Pierre de Mónaco y el Premio Georges Bizet de la Academia de Bellas de Artes de Francia, además del Premio Musika Bulegoa en dos ocasiones. En 2019, su obra completa para piano grabada por Alfonso Gómez para el sello Kairos recibió el Grand Prix du Disque de la Académie Charles Cros de Francia.
Fue becario de la Real Academia de España y de la Academia de Francia en Roma, y residente con la JONDE, en el Festival Música de Estrasburgo junto a Luis de Pablo, con el Ensemble 2e2m en París, en la Academia Ravel de Saint-Jean-de-Luz y en la Fundación Civitella-Ranieri en Italia. Es miembro permanente del Consejo de la Música de Monte Carlo.
El Festival de Otoño de París le dedicó un retrato en 2016 con el encargo de *Ravel* (*Scènes*); en 2023, Alexandre Tharaud con la Orquesta de la WDR de Colonia y la Orquesta de Euskadi estrena su segundo concierto para piano *Mare Marginis*. Entre 2001 y 2011 trabajó en *Igeltsoen Laborategia*, una colección de obras que toma como referencia el concepto oteiziano del “laboratorio experimental” y el de la tiza como materia de inscripción, de erosión y de memoria ligada a la infancia, cuyo propósito estético culmina con *Mugarri* (2010).
Es profesor de orquestación en Musikene.

http://www.lazkano.info/

## LUC, María Eugenia

LUC, María Eugenia

1958an jaiotako musikagile italiar-argentinarra. Musikako ikasketak honako lekuetan egin zituen: Argentinako Universidad Nacional de Rosario, L.I.P.M. (Buenos Aires, Argentina), Milanoko la Civica Scuola di Musica Contemporanea (Italia), París VIII Unibertsitatea (Frantzia), eta Euskal Herriko Unibertsitatea. Bekak jaso zituen hainbat erakundetan ikastaroak egiteko, esate baterako: Musikinstitut Darmstadt, Accademia Chigiana di Siena, Manuel de Falla edo Música en Compostela.

Klaseak eman ditu Buenos Aireseko Goi Mailako Kontserbatorioan, Universidad Nacional de Buenos Airesen, edo Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultatean, eta mintegi eta hitzaldiak eskaini ditu Berlin, Milan, Salamanca eta Madrilen. Ricordi Milano argitaletxearekin lan egin du jatorrizko eskuidatziak gainbegiratzen eta zuzentzen. Egun, MUSIKENE–Euskal Herriko Goi-Mailako Musika Ikastegiko irakasle da.

KURAIA (Bilboko Musika Garaikideko taldea) sortu zuen 1997an eta KLEM, 2001ean (Laboratorio de Electroacústica y Multimedia). Ensemble KURAIAko zuzendari artistikoa da.

Compositora italo-argentina nacida en 1958. Se formó en la Universidad Nacional y L.I.P.M. (Argentina), Civica Scuola di Milano, École Nationale de Musique y Universidad de París VIII, Universidad del País Vasco. Fue becaria de los Cursos Internacionales en Darmstadt, Siena, Compostela, o Granada, bajo la dirección de D. Schnebel, L. de Pablo, o B. Ferneyhough.

Su música, premiada por el Instituto I.I.L.A. (Roma), I.M.E.B. (Bourges), I.S.C.M., SGAE, Gobierno Vasco, y Ars Contemporanea, se estrena en auditorios y festivales de Europa, Asia y América siendo interpretada por destacados solistas, orquestas y grupos de cámara.

Ha sido colaboradora de Ricordi Milano y profesora del Conservatorio Superior y Universidad Nacional de Buenos Aires; de la Facultad de BB.AA.; del Máster en Artes Escénicas de la UPV (2003-2010) y actualmente es de MUSIKENE. Ha sido jurado de concursos internacionales de composición y ha dictado seminarios y conferencias en Alemania, Italia, Argentina y España.

En febrero de 2016 recibe la distinción “Melómano de Oro” por su CD monográfico *De aire y luz*, un ciclo inspirado en el Chi Kung.

En 1997 funda KURAIA (Grupo de Música Contemporánea), de la que es Directora Artística y en 2001 KLEM (Laboratorio de Electroacústica y Multimedia).

# MARCO, José Luis

MARCO, José Luis

A Coruñan jaio zen 1941ean. Lau urte zituela, familiarekin Madrilera joan zen bizitzera, eta hiri horretan hasi zen klarinetea jotzen. 16 urte zituela, Musika eta Deklamazioko Errege Kontserbatorioan sartu zen, eta Harmonia, Konposizio, Kontrapuntu, Fuga eta Klarinete ikasketak egin zituen Jesús Arambarri, Victorino Echevarría, Francisco Calés, Cristóbal Halffter eta Leocadio Parras maisuekin.

1969an Donostiara joan zen bizitzera, eta Francisco Escudero maisuarekin ikasketak zabaldu zituen. 1974an, oposizio bidez, Donostiako Kontserbatorioko Harmonia eta Konposizio Katedrako laguntzaile plaza lortu zuen. 1979an, Escudero maisuaren laguntzaile zela, Kontserbatorioko ikasle gazteen banda sortu zuen eta, 1982an, Harmoniako Katedra lortu zuen, 2006an erretiroa hartu zuen arte bete zuen postua. 2004tik erretiroa hartu zuen arte, Harmonia eta Konposizio eskolak ere eman zituen Musikenen.

Donostiako Kontserbatorioko zuzendaria izan zen 1984az geroztik, eta Donostiako Banda Sinfonikoa sortu zuen, 1992ra arte bete zituen karguak. Urte horietan zehar, *Tratado práctico de armonía* argitaratu zuen, eta harekin lan egin zuten bere ikasleek eta Gipuzkoako musika zentro gehienek. 1996an, eta LOGSEren ondorioz, *Armonia Tonal Tradicional* prestatu zuen, lege berriaren eskakizunetara egokitua.

Konpositore gisa egindako ekoizpenak, ganbera, orkestra eta pianorako hogeita hamar obra baino gehiago biltzen ditu, eta 73 *lieder* bilduma bat. Banda eta orkestrarako berrogei transkripzio baino gehiago egin ditu.

Nace en A Coruña en 1941. A los cuatro años se traslada con su familia a Madrid, ciudad en la que empieza a tocar el clarinete. A los 16 años ingresa en el Real Conservatorio de Música y Declamación, donde realiza los estudios superiores de Armonía, Composición, Contrapunto, Fuga y Clarinete, con los maestros Jesús Arambarri, Victorino Echevarría, Francisco Calés, Cristóbal Halffter y Leocadio Parras.

En 1969 se traslada a San Sebastián, donde perfecciona sus estudios con el maestro Francisco Escudero. En 1974 obtiene por oposición la plaza de auxiliar de la Cátedra de Armonía y Composición del Conservatorio de San Sebastián. En 1979, siendo auxiliar del maestro Escudero, funda la banda de jóvenes alumnos del Conservatorio y, en 1982, consigue la Cátedra de Armonía, plaza que ocupa hasta su jubilación en el año 2006. Desde 2004 hasta su jubilación, también impartió clases de Armonía y Composición en Musikene.

Fue director del Conservatorio de San Sebastián desde 1984 y creó la Banda Sinfónica de San Sebastián, cargos que desempeñó hasta 1992. Durante esos años publicó su *Tratado práctico de Armonía*, con el que trabajaron sus alumnos y gran parte de los centros musicales de la provincia de Guipúzcoa. En 1996, y como consecuencia de la LOGSE, preparó su *Armonía Tonal Tradicional*, adaptado a las exigencias de la nueva ley.

Su producción como compositor incluye más de una treintena de obras que abarcan música de cámara, orquestales y pianísticas, y una colección de 73 *lieder*, además de haber realizado más de cuarenta transcripciones para banda y orquesta.

# MORALES MURGUÍA, Hugo

MORALES MURGUÍA, Hugo

Mexiko Hiriko Musika Ikerketa eta Ikasketetarako Zentroan ikasketak amaitu ondoren, Herbehereetara joan zen graduondoko ikasketekin jarraitzeko, The Netherlands Organization for International Cooperation in Higher Education, Mexikoko Kultura eta Arterako Funts Nazionala, Prins Bernhard Cultuurfonds eta Fondspodiumkunsten neerlandarraren laguntzarekin.

Musika Konposizioko masterra du Hagako Errege Kontserbatorioan, Sonologiako masterra Hagako Sonologia Institutuan eta doktoregoa Londresko Brunel Unibertsitatean.

Haren musika saritu dute Mexikoko Musikaren Kontseiluak, Jurgenson Nazioarteko Lehiaketak, Gaudeamus Musika Asteak, SPNM Shortlisted Composerrek, Musika Berriaren Nazioarteko Foroak, Tokyoko Jaialdi Esperimentalaren Sari Nagusiak edo Composition Stipend Fondspodiumkunstenek.

Hugo Moralesen musika honako taldeek eskatu eta estreinatu dute: Arditti laukotea, Ensemble Intercontemporain, ASKO |Schoenberg, Ensemble Klang, Modelo62, CHROMA Ensemble, Neopercusión, Liminar Ensemble, Exaudi Vocal Ensemble, Champ d´Action, IKTUS Percussion Quartet, Talea Ensemble, Slagwerk Den Haag, Trio G-man, Studio for New Music Ensemble, Vortex Ensemble, London Contemporary Orchestra, Ensemble MAE, Sur Plus Ensemble, Ascolta Ensemble, Continuum, Versus 8, The Black Page Orchestra, Ensemble for New Music Tallinn edo Trio Zukan.

Tras finalizar sus estudios en el Centro de Investigación y Estudios Musicales de la Ciudad de México, se trasladó a los Países Bajos para continuar su formación de postgrado con la colaboración de The Netherlands Organization for International Cooperation in Higher Education, el Fondo Nacional para la Cultura y las Artes de México, el Prins Bernhard Cultuurfonds y el Fondspodiumkunsten neerlandés.

Tiene un máster en Composición Musical en el Real Conservatorio de La Haya, otro en Sonología en el Instituto de Sonología de La Haya y un doctorado en la Universidad de Brunel en Londres.

Su música ha sido premiada por el Consejo Mexicano de la Música, el Concurso Internacional Jurgenson, la Semana Musical Gaudeamus, SPNM Shortlisted Composer, Foro Internacional de Nueva Música, Gran Premio del Festival Experimental de Tokyo o el Composition Stipend Fondspodiumkunsten.

La música de Hugo Morales ha sido encargada y estrenada por agrupaciones como el cuarteto Arditti, el Ensemble Intercontemporain, ASKO|Schoenberg, Ensemble Klang, Modelo62, CHROMA Ensemble, Neopercusión, Liminar Ensemble, Exaudi Vocal Ensemble, Champ d´Action, IKTUS Percussion Quartet, Talea Ensemble, Slagwerk Den Haag, Trio G·man, Studio for New Music Ensemble, Vortex Ensemble, London Contemporary Orchestra, Ensemble MAE, Sur Plus Ensemble, Ascolta Ensemble, Continuum, Versus 8, The Black Page Orchestra, Ensemble for New Music Tallinn o el Trio Zukan.

# OLAIZOLA, Gabriel

OLAIZOLA, Gabriel

1891n Hernanin jaio zen. Bere anaia Josék bezala, herriko organista zen Manuel Cendoyarekin hasi zituen musika ikasketak. 1916an Donostiako Orfeoian sartu zen eta ondoren Bartzelonara joan zen Joaquín Vehilsekin ikastera.

Bere ibilbidean zehar, Donostiako Arte Ederrak, Bilboko Campos Eliseos, Madrilgo Teatro Real, Bartzelonako Liceo, Lisboako San Carlos, Milango Scala, Napoliko San Carlo, Parmako Regio eta abar bezalako areto eta antzokietan aritu zen abeslari gisa, eta Mancinelli, Toscanini, Santini eta Capuano zuzendarien zuzendaritzapean. Euskal operaren esparruan, Zapirainen *Chanton Piperri*, Usandizagaren *Mendi-Mendiyan*, Guridiren *Amaya* edo bere anaia José de Olaizolaren *Oleskari Zarra* antzeztu zituen.

Koru zuzendari gisa, Eusko Abesbatza zuzendu zuen 1931n, eta 1937an, Jose Antonio Agirre lehendakariak eskatuta, Eresoinka euskal abesbatza nazionala sortu zuen. 1949an Hernaniko Schola Cantorum sortu zuen. Kantu irakaslea ere izan zen Covadongako Seminarioan, Gasteizko Elizbarrutiko Seminarioan eta Hernaniko Oblatos Ikastetxean.

Hernanin zendu zen 1973an.

Nacido en Hernani en 1891, al igual que su hermano José inició los estudios musicales con Manuel Cendoya, organista de la localidad. En 1916 ingresó en el Orfeón Donostiarra y posteriormente se trasladó a Barcelona para estudiar con Joaquín Vehils.

A lo largo de su carrera actuó como cantante en salas y teatros como el Bellas Artes de Donostia, Campos Elíseos de Bilbao, Teatro Real de Madrid, Liceo de Barcelona, San Carlos de Lisboa, Scala de Milán, San Carlo de Nápoles, Regio de Parma y un largo etcétera bajo batutas tan importantes como las de Mancinelli, Toscanini, Santini y Capuano.

En el ámbito de la ópera vasca, interpretó papeles en *Chanton Piperri* de Zapirain, *Mendi-Mendiyan* de Usandizaga, *Amaya* de Guridi u *Oleskari Zarra,* de su hermano José de Olaizola.

Como director de coro, dirigió al Eusko Abesbatza en 1931 y en 1937 fundó, a instancias del lehendakari José Antonio Aguirre, el coro nacional vasco Eresoinka. En 1949 fundó la Schola Cantorum de Hernani. Fue asimismo profesor de canto en el Seminario de Covadonga, en el Seminario Diocesano de Vitoria-Gasteiz y en el Colegio Oblatos de Hernani.

Falleció en su localidad natal en 1973.

# OLAIZOLA, José de

Hernanin jaio zen 1883an. 8 urterekin musika ikasketak hasi zituen Manuel Cendoya organistarekin.
Harmonia, kontrapuntua, konposizioa, organoa eta ahots-taldea ikasten jarraitu zuen Donostiako Arte Ederren Akademian. Bustinduy, Echeverria, Luzuriaga eta Secundino Esnaolarekin batera, Koral Elkartea antolatu zuen, gero Donostiako Orfeoia bilakatuko zena.
1906an Santa Maria parrokiako organista plaza irabazi zuen, José Antonio Santestebanen lekua hartuz. Euskal Herriko Txistularien Elkartearen sorreran parte hartu zuen eta bere alardeak zuzendu zituen hainbat urtez. Musikaren irakaskuntzan ere jardun zuen. Aldi berean, Donostiako Udaleko zinegotzia, euskaltzaina eta hainbat antzezlanen egilea izan zen, hala nola *Bigar arte*? *Kar, kar, Markesaren alaba, Bizi modu berria* edo *Antziñako legiak*.
Konpositore gisa egindako ekoizpena zabala izan zen. Ehun obra erlijioso inguru ditu, baina, José Luis Ansorenaren arabera, musika profanoan daude bere lanik distiratsuenak: abesbatzen obrak, ahots eta pianorako, txisturako obrak, musika eszeniko kostunbrista, musika sinfonikoa, etab. Horien artean aipatzekoak dira *Urte leloak* poema, *Sorgiñeta* balleta, *Zorigaiztoko eguna* zarzuela eta, bereziki, *Oleskari zarra* euskal opera. 2001ean bere seme Imanol Olaizolak idatzitako *José de Olaizola, oroitzapenak: 1883-1969* monografia argitaratu zen.
Donostian hil zen 1969ko ekainaren 8an.

Nace en Hernani en 1883. A los 8 años inicia los estudios musicales con el organista Manuel Cendoya. Continúa estudiando armonía, contrapunto, composición, órgano y conjunto vocal en la Academia de Bellas Artes de San Sebastián. Junto con los Bustinduy, Echeverría, Luzuriaga y Secundino Esnaola, organizó la Sociedad Coral de la que luego surgiría el Orfeón Donostiarra. En 1906 ganó la plaza de organista de la parroquia de Santa María, sucediéndole en el puesto a José Antonio Santesteban. Participó en la fundación de la Asociación de Txistularis del País Vasco y dirigió sus alardes durante varios años. Se dedicó también a la enseñanza de la música. Paralelamente, fue concejal del Ayuntamiento donostiarra, Académico de la Lengua Vasca y autor de varias obras de teatro como *Bigar arte? Ja, ja*, *Markesaren alaba*, *Bizi modu berria* o *Antziñako legiak*.
Su producción como compositor fue amplia. Tiene en su haber cerca de un centenar de obras religiosas aunque, según José Luis Ansorena, es en la música profana donde se hallan sus páginas más brillantes: obras corales, para voz y piano, obras para txistu, música escénica costumbrista, música sinfónica, etc. Entre todas ellas podemos citar el poema *Urte leloak*, el ballet *Sorgiñeta*, la zarzuela *Zorigaiztoko eguna* y, especialmente, la ópera vasca *Oleskari zarra*. En 2001 se publicó la monografía *José de Olaizola, oroitzapenak: 1883-1969* escrita por su hijo Imanol Olaizola.
Falleció en San Sebastián el 8 de junio de 1969.

RAVEL, Maurice

## RAVEL, Maurice

Ziburun (Lapurdi) jaio zen 1875eko martxoaren 7an. Musika ikasketak Parisko Kontserbatorioan egin zituen De Bériot, Anthiome eta Faurérekin. 21 urte zituenetik oso ezaguna izan zen bere konposizioen originaltasunagatik, askotan eztabaidagarriak.
1899an *Minueto zaharra* eta *Pavana para una Infanta difunta* konposatu zituen. 1901ean Erromako bigarren saria lortu zuen *Myrrha* kantatarekin eta *Ur-jokoak* idatzi zituen. Ondorengo obrek —*Gaspard de la nuit, Ma mère l 'Oye, Rapsodia española, Canción a Dulcinea, Alborada del Gracioso*, etab.— beren ikusmolde inpresionista, hegoaldeko ñabardura distiratsuak eta kezka koloretsua erakusten dituzte, tipikeriari amore eman gabe.
Ravelen izaera ironikoak *La hora española* komedia musikal bat konposatzea erraztu zion, opera bufoak gogorarazten dituena eta opera italiar zaharraren karikatura bat dena. Ravelek udetan Lapurdi bere jaioterria bisitatzen zuen. Euskara zuzen hitz egiten zuen eta amaren etxean ostatu hartzea gustatzen zitzaion, Donibane Lohizuneko jai herrikoietara eta kafe-solasaldietara joanez. Euskal izaerako obra bat idazten saiatu zen —*Zazpiak bat*— baina amaitu gabe utzi zuen. Hainbat aldiz bisitatu zuen penintsula, beti bere obrak interpretatzen zituzten orkestrekin. Andaluziara egindako bidaietako batean, dantzari bati *cañí* boleroa interpretatzen ikusi zuen. Horrek bultzatu zuen 1928an bere *Boléro* ospetsua idaztera.
1929an, Ziburun, Iruñean, Donostian, Baionan eta Biarritzen hainbat omenaldi egin zizkioten.
Pianorako eta orkestrarako bi Kontzertuak, *Bals noble eta sentimentalak*, *Le tombeau de Couperin*, *La Valse, L'enfant et les sortilèges, Daphnis et Cloe*, etab. bezalako lan ospetsuak ekoitzi ondoren, bere organismoan bat-bateko aldaketa bat izan zuen, pixkanakako paralisi nekagarri bat deklaratu baitzitzaion.
Parisen zendu zen 1937ko abenduaren 28an.

Nació en Ziburu (Lapurdi) el 7 de marzo de 1875. Hizo sus estudios musicales en el Conservatorio de París con De Bériot, Anthiome y Fauré. Desde sus 21 años fue muy conocido por la originalidad de sus composiciones, muchas veces controvertidas.
En 1899 compuso el *Minueto antiguo* y la *Pavana para una Infanta difunta*. En 1901 consiguió el segundo premio de Roma con la cantata *Myrrha* y escribió los *Juegos acuáticos*. Las obras que siguieron —*Gaspard de la nuit*, *Ma mère l'Oye*, *Rapsodia española*, *Canción a Dulcinea*, *Alborada del Gracioso*, etc.— muestran su concepción impresionista, los matices brillantes del sur y la preocupación colorista sin concesiones al tipismo.
El temperamento irónico de Ravel le facilitó componer *La hora española,* una comedia musical que recuerda a las óperas bufas y que es una caricatura de la vieja ópera italiana.
Ravel visitaba los veranos su tierra laburdina. Hablaba con corrección el euskera y le gustaba alojarse en su hogar materno, asistiendo a los festejos populares de San Juan de Luz y a las tertulias de café. Intentó escribir una obra de carácter vasco —*Zazpiak bat*—, pero la abandonó sin haber completado su desarrollo.
Visitó varias veces la península, siempre con orquestas que interpretaban obras suyas. En uno de sus viajes a Andalucía vio interpretar a una bailarina el bolero cañí. Esto fue lo que le impulsó en 1928 a escribir su celebérrimo *Bolero*.
En 1929, Ziburu, Pamplona, San Sebastián, Bayona y Biarritz le rindieron homenajes diversos.
Tras haber producido obras tan famosas como los dos *Conciertos para piano y orquesta*, los *Valses nobles y sentimentales*, *Le tombeau de Couperin*, *La Valse*, *L'enfant et les sortilèges*, *Daphnis et Cloe*, etc. experimentó en su organismo un cambio brusco, al declarársele una penosa parálisis progresiva.
Falleció en París el 28 de diciembre de 1937.

SANTA TERESA, José Domingo de

## SANTA TERESA, José Domingo de

Francisco María Ugartechea Urquieta Markinan jaio zen 1888an. Txikitan tiple izan zen bere parrokian. Eliza eta musika ikasketak Larreako apaiztegi karmeldarrean egin zituen. Apaiztu ondoren, musika ikasketak Iruñean Valentín Larrearekin, Gasteizen J. M.ª Vírgalarekin eta Burgosen José M.ª Beobiderekin zabaldu zituen.

Solesmesera joan zen, eta bertan gregorianoan formazio sendoa eskuratu zuen. Gerra zibila piztu zenean, hiru urtez jazarri eta espetxeratu zuten estatuko hainbat kartzelatan. 1940an espetxetik atera ondoren, Santanderrera erbesteratu zuten. Han, kantabriar musikariekin harremanetan jarri zen eta lurralde honetako abestiak harmonizatu zituen. Gainera, bere aurreko konposizioak berrikusten eta editatzen ditu. 1967an Markinara bidali zuten, bere jaioterrira, eta bertan bizi izan zen bere bizitzako azken 13 urteetan.

Musikagile gisa, musika erlijiosoari ekin zion batez ere, hainbat meza, salmo ugari, moteteak, *Stabat Mater* eta gabon kantak idatzi zituen, besteak beste. Partitura horietako asko liturgia-musika berritzeko garaian idatzi ziren, eta kultuari zerbitzu handia eman zioten, espiritualtasunean eta teknikan eredugarritzat joz. Transkripzio lanak egiteaz gain, musika profanoa ere landu zuen euskal folklore-inspirazioko lanekin. Horrela, euskal doinu herrikoietan oinarritutako ahots misto edo baxuetarako 40 abesti orfeoiko inguru konposatu zituen, baita ganberako bi pieza ere. Markinan hil zen 1980an.

Francisco María Ugartechea Urquieta nace en Markina en 1888. De niño fue tiple en su parroquia. Realizó sus estudios eclesiásticos y musicales en el seminario carmelita de Larrea. Ordenado sacerdote, amplió sus estudios musicales en Pamplona con Valentín Larrea, en Vitoria con J. M.ª Vírgala y en Burgos con José M.ª Beobide. Se trasladó a Solesmes, donde adquirió una sólida formación gregoriana. Al estallar la guerra civil es perseguido y encarcelado durante tres años en distintas cárceles del estado. Una vez excarcelado en 1940, le destierran en Santander, donde contacta con músicos cántabros y armoniza canciones de esta tierra. Se dedica además a revisar y editar sus composiciones anteriores. En 1967 es destinado a Markina, su pueblo natal, donde residió los últimos 13 años de su vida.

Como compositor se dedicó principalmente a la música religiosa, con varias misas, numerosos salmos, motetes, *Stabat Mater* y villancicos, entre otros. Gran parte de estas partituras fueron escritas en la época de la renovación de la música litúrgica y prestaron un gran servicio al culto, siendo consideradas modélicas en espiritualidad y técnica. Además de realizar tareas de transcripción, cultivó también la música profana con obras de inspiración folklórica vasca. Compuso así cerca de 40 canciones orfeónicas para voces mixtas o graves sobre melodías populares vascas, así como dos piezas de cámara. Falleció en Markina en 1980.

SARASOLA, Xabier

## SARASOLA, Xabier

19 urterekin hasi zen musika ikasten eta biolin eta piano irakasle tituluak lortu zituen. Gaur egun Beasaingo Udal Musika Eskolan dihardu biolin, harmonia eta kantu koral irakasle. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioan eman diren koru zuzendaritza ikastaroetan izan da eta baita Eric Ericson, Carl Hogset, Anders Eby eta beste hainbatekin egin diren mintegietan ere. Loinatz koruaren zuzendaria 25 urtez, hauekin parte hartu du hainbat lehiaketatan –eta saria lortu–, kontzertuetan eta jaialdietan. Donostiako Orfeoian kantari izana da eta gaur XX. mendeko koru musika egiten duen KEA ahots taldeko partaide da. Gipuzkoako Abesbatzen Federazioko batzorde teknikoko kide izan da baita Gipuzkoako gazte koruaren zuzendari ere. Euskal Herriko Abesbatzen Federazioaren ikastaroetan koru zuzendaritza irakasten du.
Musikagile ere bada eta korurako hainbat lan egin ditu, hala nola, *Veni Creator Spiritus*, 2002an Tolosan Abesbatzen Lehiaketan ahots berdinetarako polifonia sailean derrigorrezkoa izan zena.

Inicia sus estudios musicales a la edad de 19 años, obteniendo los títulos de profesor de violín y piano. En la actualidad ejerce como profesor de violín, armonía y canto coral en la Escuela Municipal de Música de Beasain.
Ha asistido a los cursos de dirección coral de la Federación de Coros de Gipuzkoa y a seminarios con Eric Ericson, Carl Hogset, Anders Eby, etc. Director del coro Loinatz durante 25 años, con quien ha participado en varios concursos obteniendo diversos premios y en numerosos conciertos y festivales corales. Ha sido cantor del Orfeón Donostiarra y ahora lo es del grupo vocal KEA, que se dedica a la música coral del s. XX.
Ha sido miembro del comité técnico de la Federación de Coros de Gipuzkoa y director del Coro Juvenil de Gipuzkoa. Es profesor de dirección coral de los cursos de la Federación de Coros de Euskal Herria.
Como compositor es autor de varias obras corales entre las cuales se encuentra *Veni Creator Spiritus,* obra obligada en la sección de polifonía voces iguales en el Certamen de masas corales de Tolosa 2002.

UGALDE, Eva

## UGALDE, Eva

Donostian jaio zen 1973an. Konposizio eta koru zuzendaritza ikastaroak egin zituen Donostian, Gotzon Aulestia eta Miguel Amantegiren eskutik. Javier Bustok zuzendutako Kanta Cantemus ganbera taldeko kide izan da, eta baita Gabriel Baltések zuzendutako KUP taldekoa ere. Donostiako Francisco Escudero Kontserbatorioko Musika Lengoaiako eta Koruko irakaslea da. Korurako obrak konposatu ditu batez ere, eta konposizio koraleko hainbat sari ditu.

Nace en San Sebastián en 1973. Cursa estudios de composición y dirección coral en Donostia con Gotzon Aulestia y Miguel Amantegi, respectivamente. Ha formado parte de los grupos de cámara Kanta Cantemus, dirigido por Javier Busto, y KUP, dirigido por Gabriel Baltés. Es profesora de Lenguaje Musical y Coro en el Conservatorio Francisco Escudero de Donostia. Forma habitualmente parte de jurados de concursos y competiciones. Es autora fundamentalmente de obras corales, estando en posesión de diversos premios de composición coral.

URTEAGA, Juan

## URTEAGA, Juan

Balmasedan jaio zen 1914an. Luis Urteaga konpositore eta organista ospetsuaren semea zen, eta berarekin hasi zen musika ikasten. 1920an Donostiako San Bizente Parrokian organista plaza lortu zuenean, Juan parrokia horretako koruan hasi zen abesten. 1928 inguruan Donostiako Kontserbatorioan hasi zituen ikasketak, eta 1934an, Gipuzkoako Aldundiaren beka bati esker, organoa ikasi zuen Parisen, Marcel Duprérekin. Itzuli zenean, bere bizitza organista eta abesbatzen zuzendaritzako eginkizunen artean banatu zen. 1940an Donostiako Santa Maria Parrokia Nagusian organista postua hartu zuen. Urte berean, Koruko Andre Mariaren Schola Cantorum sortu zuen. Easo Abesbatzako zuzendaria ere izan zen. 1955ean Ciudad Trujillora (Dominikar Errepublika) joan zen bizitzera, eta Kontserbatorioko zuzendari izendatu zuten. Ia hamarkada baten ondoren, Puerto Ricoko San Juan Eskola Librean irakasle izateko prestatzen ari zela, Donibane Lohizuneko Parrokiako organista eta koru zuzendari izateko oposizio batzuetara aurkeztu zen, plaza irabaziz. Bertan, abesbatzak zuzentzeko eta konposatzeko lanari ekin zion. Belloc monasterioko beneditarrentzat kolaboratzaile aparta bilakatu zen eta kontziliazio osteko musika pastoralaren edizioetan parte hartu zuen.

1971n Donostiara joan zen eta Donosti-Ereskiren ardura hartu zuen. 1977an, Donibane Lohizunek omenaldi handia egin zion, eta, 1989an, Donostian berriro omendu zuten berak zuzendutako abesbatzek: Schola Cantorum-ek, Easo abesbatzak eta Donosti-Ereski abesbatzak.

Hainbeste urtez organista izan arren, ez zuen ia organorako obrarik idatzirik. Aitzitik, korurako lanen zerrenda oso zabala da, bereziki musika erlijiosoarena, horien artean *Korsarioen Meza* nabarmentzen delarik. Euskal doinu herrikoietan edo beste folkloreetan (dominikarrean adibidez) oinarritutako korurako musika ere idatzi zuen. Noizean behin, pianorako, liederrak zinemarako eta abarretarako obra batzuk ere konposatu zituen.

Donostian hil zen 1990eko urtarrilaren 2an.

Nació en Balmaseda en 1914. Era hijo del eminente compositor y organista Luis Urteaga, quien le inició en la música. Al conseguir éste en 1920 la plaza de organista en la Parroquia de San Vicente en San Sebastián, Juan se convirtió en niño de coro de dicha parroquia. Hacia 1928 inició sus estudios en el Conservatorio donostiarra y, en 1934, becado por la Diputación de Gipuzkoa, estudió órgano en París con Marcel Dupré. A su regreso, su vida se dividió entre las tareas de organista y las de dirección de coros. En 1940 ocupó la plaza de organista en la Parroquia Matriz de Santa María en San Sebastián. Este mismo año fundó la Schola Cantorum de Nuestra Señora del Coro. Fue También director del Coro Easo.

En 1955 se trasladó a Ciudad Trujillo (República Dominicana), donde fue nombrado director del Conservatorio. Tras casi una década, mientras se preparaba para ser profesor en la Escuela Libre de San Juan de Puerto Rico, se presentó a unas oposiciones para organista y director de coro de la Parroquia de San Juan de Luz en el País Vasco-francés, ganando la plaza. Aquí se entregó a una labor de composición y dirección de coros. Los benedictinos del monasterio de Belloc encontraron en él a un colaborador excepcional para sus ediciones de música pastoral post-conciliar.

En 1971 se trasladó a San Sebastián y se hizo cargo de Donosti-Ereski. En 1977 San Juan de Luz le tributó un gran homenaje y, en 1989, volvió a ser homenajeado en San Sebastián por los coros que él había dirigido: Schola Cantorum, Easo y Donosti-Ereski.

A pesar de haber sido organista durante tantos años, apenas dejó obra escrita para este instrumento. En cambio, es amplísima su lista de obras corales, especialmente de música religiosa, entre las que destaca su *Misa de los Corsarios*. También cultivó ampliamente la música coral sobre melodías populares vascas o de otros folklores, como el dominicano. Esporádicamente también compuso algunas páginas para piano, *lied*, cine, etc.

Falleció en San Sebastián el 2 de enero de 1990.

# VILORIA, Itziar

VILORIA, Itziar

Musikagilea, elektronikako interpretea, produktore teknikoa eta artista plastikoa, 1997an Ortuellan jaioa. Hainbat diziplina artistikotan duen interesa dela eta, sormen-prozesuan zehar bitarteko hizkuntza garatzen duten artistekin lankidetzan aritu da.
Horien artean, Alex Tentor (gaur egun berarekin CopDeCap duoa osatzen duenak), The Black Page Orchestra, Jordi Oriol eta Lluïsa Espigolé nabarmentzen dira. Konpositore gisa, Gaudeamus Muziekweek (Holanda), IMPULS Festival (Austria), Gran Teatre del Liceu eta Festival Mixtur (Bartzelona), Real Filharmonía de Galicia edo Euskadiko Orkestraren enkarguak jaso ditu. Gainera, Ulysses Network-en (Creative Europe) Composers Journeys proiekturako hautatu zuten, 2021ean eta 2022an, Europako konposizioaren promesa gazte gisa.
Musika mistoan duen interesak, elektronikako eta ekoizpen teknikoko interpreteen profila eta konposizioa aztertzera eraman du. Gaur egun, FRAMES Percussion-eko kide egonkorra da eta *Difraccions* zikloaren ekoizle teknikoa da. Gainera, errejidore gisa lan egiten du eta Konposizioko irakaslea ere bada Bartzelonako Goi Mailako Taller de Músics graduan.

Compositora, intérprete de electrónica, productora técnica y artista plástica nacida en Ortuella en 1997, su interés en diferentes disciplinas artísticas le ha llevado a colaborar con artistas con quienes desarrolla su lenguaje intermedial durante el proceso creativo. Entre ellos destacan Alex Tentor —con quien actualmente forma el dúo CopDeCap—, The Black Page Orchestra, Jordi Oriol y Lluïsa Espigolé. Como compositora, ha recibido encargos de Gaudeamus Muziekweek (Holanda), IMPULS Festival (Austria), Gran Teatre del Liceu y Festival Mixtur (Barcelona), Real Filharmonía de Galicia o Euskadiko Orkestra. Además, fue seleccionada para el proyecto *Composers Journeys* de Ulysses Network (Creative Europe) como joven promesa de la composición europea en 2021 y 2022. Su interés en la música mixta le ha llevado a explorar el perfil de intérprete de electrónica y de producción técnica además de la composición de ésta. Actualmente, forma parte de FRAMES Percussion como miembro estable y es productora técnica del ciclo *Difraccions*. Además, trabaja como regidora y también es profesora de Composición en el Grado Superior Taller de Músics de Barcelona.

**www.itzziarviloria.com**

ZUBIZARRETA, Víctor de

## ZUBIZARRETA, Víctor de

Bilbon jaio zen 1899an. Solfeoa, pianoa eta organoa ikasi zituen Felipe Arando eta Amadeo Baldorrekin Bizkaiko Musika Akademian. 12 urte besterik ez zituela, bere irakasle Amadeo ordezkatu zuen San Nikolas parrokiako organoan. Ondoren harmonia eta konposizioa ikasi zituen Jesús Guridi eta José Sainz Basaberekin. Piano, organo, harmonia eta konposizio ikasketak zabaldu zituen Bernardo de Gabiola eta Fontanillarekin Madrilen, eta konposizioan eta organoan karrera amaierako sariak lortu zituen. Pariseko Schola Cantorumera joan zen eta Vicent d´Indyren irakaspenak jaso zituen. Itzuli zenean, organo-kontzertista ibilbideari ekin zion, eta hainbat hiritan jardun zuen, hala nola Donostian, Gasteizen, Valladoliden, Sevillan eta Zaragozan. 1926an Bilboko Schola Cantorum Santa Cecilia sortu zuen, batez ere musika erlijiosoari eskainia. Horrekin bira gogoangarriak egin zituen Toledo, Madril, Burgos eta Salamancako katedraletan. Eduardo Gorosarri hil zenean, Begoñako Basilikako organista kargua hartu zuen. Era berean, Jesús Guridiren lekua hartu zuen Bizkaiko Musika Kontserbatorioko organo katedran, non, gainera, zuzendari izan zen, eta ikasle belaunaldi oso bat hezi izan zuen. Txistularien Elkarteko kidea, otxote sariketen bultzatzaile handia izan zen.

Abesbatza eta organoa izan ziren bere konposizio jarduera gehien garatu zuen musika eremuak, erlijiosoa zein profanoa. Obra sinfoniko batzuk ere utzi zituen, ganberakoak, pianorako eta txistu-bandarako piezak, besteak beste.

Bilbon hil zen 1970ean.

Nace en Bilbao en 1899. Estudia solfeo, piano y órgano con Felipe Arando y Amadeo Baldor en la Academia Vizcaína de Música. Con tan sólo 12 años, sustituye a su profesor Amadeo en la organistía de la parroquia de San Nicolás. Posteriormente cursa armonía y composición con Jesús Guridi y José Sainz Basabe. Amplía sus estudios de piano, órgano, armonía y composición con Bernardo de Gabiola y con Fontanilla en Madrid, obteniendo el premio fin de carrera en composición y en órgano. Se traslada a la Schola Cantorum de París, donde recibe lecciones de Vicent d'Indy.

A su vuelta inicia su carrera de concertista de órganos actuando en numerosas ciudades como San Sebastián, Vitoria, Valladolid, Sevilla y Zaragoza. En 1926 funda la Schola Cantorum Santa Cecilia de Bilbao, dedicada sobre todo a la música religiosa, con la que realiza memorables giras por las catedrales de Toledo, Madrid, Burgos y Salamanca.

A la muerte de Eduardo Gorosarri asume el cargo de organista de la Basílica de Begoña. Asimismo, sustituye a Jesús Guridi en la cátedra de órgano del Conservatorio Vizcaíno de Música, donde fue además director, formando a toda una generación de alumnos.

Miembro de la Asociación de Txistularis, fue un gran impulsor de los certámenes de ochotes.

El coro y el órgano fueron los campos musicales en que más desarrolló su actividad compositiva, tanto religiosa como profana. También dejó una serie de obras sinfónicas, de cámara, piezas para piano y para banda de txistus, entre otros.

Falleció en Bilbao en 1970.





ANTOLATZAILEAK ORGANIZAN

AMA
Andra Mari Abesbatza

50 URTE AÑOS Eresbil

SUSTATZAILEAK PROMUEVEN

Kultura kreaktiboa

ERRENTERIA UDALA

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputacion Foral de Gipuzkoa

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA

BABESLEAK PATROCINAN

LABORAL kutxa

super amara

LAGUNTZAILEAK COLABORAN

Herri Arte Eskola

Musikagileak